

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA'90**

ITUREN
LESAKA
ARBERATZE
EZPELETA
LEKUNBERRI
GOIZUETA

Egilea: Nafarroako Bertsolarien Lagunak
Koordinatzaile: Lorentxo Aburuza
Azala: K. Txokarro
Argazkilaria: Juanxo Egaña, Manu Gomez
Fotokonposoketa: Fonasa
Inprimatzailea: Line Grafic
Babeslea: Nafar Gobernuko Kultura eta hezkuntza saila
D. L. NA 735 – 1990

AURKIBIDEA

SAIOAK	Orrialdea
Aintzin solasa	7
Azalpenak.....	8
• KANPORAKETAK	
Ituren.....	12
Lesaka	27
Arberatze	41
Ezpeleta	51
Lekunberri.....	73
• FINALA	
Goizueta.....	95

AINTZIN SOLASA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren XIX, ekitaldia burutu da. Orai, norberak atera bitza ondorioak, baina zilegi bekigu azalpen ttipi batzu emaita. Aurtengo txapelketa, urteroko txapelketek zuten ohizkotasunaren muga gainditu nahiean, taldeka egin da. Taldeka egin ere, bertsolariek beraiek urtarrilaren 20an Elizondon eginiko bilera batean hala erabaki zutelakoz. Jakiteko dago orainik, ororen gustokoa izan denentz, baina dagoena bego, eta esperientzi bezala bederen, baliogarri bekio Nafarroako bertsolaritzaren dinamikari.

Jakin badakigu nehoiz ez duela orori atsegingarri gerta dakion neurrian euririk egiten, ez eginen ere, baina txapelketa taldeka egiteak badu, ohizkotasun hori apurtzeaz gain, bertze helburu bat. Nafarroako bertsolariei udan herriz herri egiten dituzten saioetarako, bertsolari bezala gehiago elgar ezagutu eta, norbere eta adiskideen bertso estiloaz jabetu eta lantzeko, aukera ezin hobea bilakatzen ahal zaie gisa honetara antolatutako txapelketa. Emeki emeki, eskuz esku, elgarlanean anitz aintzinapauso emaitako dago oraino gure herrialdean.

Pretensione handirik gabe, gure ahal eta neurri apalean, bertsolaritzaren garapen bidean, zeregitekorik ukan badugu etxetik, Nafarroatik hasiaz. Erran nahi bait da, azken urteotan lanik frango egin dela, halarik ere, ez sobera aldakuntza nabarmenik somatu ahal izaiteko.

Bertzale, aurtengo Nafarroako txapelketa hasi denerako itzaltzeke zeuden, eta daude, 1989ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren oihartzunak. Ez beza nehork hura erreferentzi puntu bezala hartzeko tentazionerik ukan eskuartean duen liburuxka hau irakurtzerakoan, nahiko (erabat ez erraiterren) errealitate eta gune desberdinetan kokatzen bait dira biak ere.

Bertzerik gabe, geroan Nafarroan egun bizi dugun bertsolaritzaren gordailu bat izan dezaten eta zuk ere, irakurle horrek, "Nafarroako Bertsolari Txapelketa 90" honen bertsoak goxatzen hasteko gogoia izanzen duzunez, on egin dagizula eskuartean duzun liburuxka honek.

Egon bizkor!

AZALPENAK

ANTOLAKETA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren XIX, ekitaldia, urtero ohi duen bezala, "Nafarroako bertsolarien Lagunak Elkarteak" antolatu du. Ardura nagusiena bere gain egonagatik, saioak antolatzen diren herrietan talde laguntzaileen lana ere ezin dugu ahantzi. Erran gabe doa, gure aldetik eskerrik beroenak ematen dizkiegula isilean hainbat lan egin duten lagun guzi hoiei.

GAIJARTZAILEAK

Nafarroaren eremu zabala batetik, eta bertetik txapelketa Nafarroa Behera eta Garaiko herri desberdinetan egiten dela kontuan izanik, gaijartzaileak ere bat baino gehiago izan dira.

Ituren eta Lesakan, Patxi Larretxearen esku egon zen lan hori. Arberatze eta Ezpeletan, aldiz, Irieder aritu zen. Lekunberri eta Goizuetako finalean Mikel Tabernak zuzendu zuen saioa.

EPAIMAHAIA

Azken urtetan bezala, epaiketa lanak sei lagunen esku egon dira. Dena den, lehenengo fasean, Ituren, Lesaka eta Arberatze saioetan alegia, lau lagun bakarrik aritu ziren: Mikel Bujanda, Joxe Urroz, Mixel Itzaina eta Jean Pierre Etxegoien.

Bigarren fasean laukote honi Aingeru Epalza eta Emile Larre gehitu zitzaion. Hala ere, aipatu dezagun bigarren txanpa honetarako Mixel Itzinak ez zuela egiteko horretan jarduterik izan osasun arazoengatik, eta bere lekua Fermín Mihurak bete zuen.

PARTEHARZAILEAK

Nafarroako bertsolari guziek izan dute txapelketan parte hartzeko aukera, ihazko txapelketan lortutako emaitzen bitartez edo Ituren, Lesaka eta Arberatzen eginiko kanporaketa saioen bidez. Parte hartzeko izena honoko bertsolari hauek eman zuten:

- 1) Aburuza Lontxo (Iruñea)
- 2) Aire Mixel "Xalbador II" (Urepel)
- 3) Aizagirre Joxe Mari (Areso)
- 4) Alkat Ernest (Iholdi)
- 5) Amorena Txomin (Zugarramurdi)
- 6) Argiñarena Joxe Migel (Errazkin)
- 7) Argiñarena Joxe Fermín (Errazkin)
- 8) Arzállus Jesús (Hendaia)
- 9) Arozena Manolo (Lesaka)
- 10) Eizmendi José Luis "Errexil" (Urruña)
- 11) Elizagoien Bittor (Arraioz)
- 12) Ezponda Txomin (Jatsu)
- 13) Fagoaga Joxe Mari (Ituren)
- 14) Fagoaga Euxebio (Ituren)
- 15) Harinordoki Jean Louis "Laka" (Baigorri)
- 16) Jaso Moisés (Gaintza)
- 17) Madariga Bautista (Arantza)
- 18) Madariga Xalbador (Arantza)
- 19) Martikorena Anjel (Igoa)
- 20) Mihura Fermín (Sara)
- 21) Olano Antonio (Arano)
- 22) Olaziregi Inazio (Sara)
- 23) Perurena Bautista (Leitza)
- 24) Zeberio Patxi (Iruñea)

Zerrenda honetan agertzen den José Luis Eizmendi "Errexilek", Arberatzen kantatu behar zuen baina osasun arazoengatik ez zuen azaltzerik izan. Bere lekua Xalbadorrek bete zuen, nahiz honen lana epaimahaiak ez kontuan hartu, ihazko finalista izanik pasata bait zegoen.

EGITURA

Aurtengo txapelketa bi fasetan jokatu da. Lehen fasean, Ituren, Lesaka eta Arberatzen eginiko kanporaketa saioetan bertsolarien lana banaka epaitu zuten horretarako zeudenak. Bigarren fasean berriz, taldeka aritu ziren bertsolariak. Aurtengo honetan 24 bertsolari aritu dira orotara. Ihaztik txartela eskuratuta zuten Ezponda, Xalbador, Arzallus, Argiñarena bi anaiak, Arozena eta Alkati, aintzinean aipatu ditugun hiru saio hoietatik Elizagoien, Fagoaga anaiak, Martikorena, Aburuza, Olano, Laka Arrosagarai eta Amorena batu zitzaizkien. Hamasei bertsolari hauekin jokatu zen bigarren fasea taldeka, Ezpeleta eta Lekunberrin eginiko saioetan. Lekunberriko saioan Txomin Amorenak jarduterik izan ez zuenez bere lekua Batista Perurenak bete zuen.

DIRU LAGUNTZAK

Nafarroako Gobernua	2.000.000 pzta.
Lankide Aurrezki Kutxa	130.000 pzta.
Lekunberriko udala.....	100.000 pzta.
Goizuetako udala	100.000 pzta.
Nafarroako kutxa.....	100.000 pzta.
Kutxa Munizipala.....	50.000 pzta.
Euskaltzaindia	25.000 pzta.
GUZTIRA	2.505.000 pzta.

Diru sarrera hauei saioetan sarreren bidez ateratako dirua gehitu behar zaie.

Ikusten ahal da Nafarroako Gobernua dela diru gehien eman duena. Dena den, Nafarroako Gobernuak emandako diru honekin txapelketa antolatzeaz gain udako saioak ere antolatu behar ditu "Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteak".

Lerro hauen bidez gure eskerrik beroena azaldu nahi diegu, neurri batean behintzat, txapelketa hau antolatzeko laguntza hauek eman dituztenei.

LIBURUA EGITEKO ERIZPIDEAK

Liburua egiterakoan, irakurleari atsegingarrien gerta dakizkion bertsoak aukeratzen saiatu gara. Goizuetako saioa oso osorik paratu badugu ere, bertze saioetarik onentsuenak bakarrik biltzen saiatu gara, beti ere, partehartzaile guzien zerbait sartu dugularik.

Transkribapen lana egiteaz Pablo José Aristorena arduratu da. Bertsolariak beraiek kantaturiko gisa berean saiatu da paperera pasatzen, beraz, ez da harrizkoa izanen barka daiteken huts bat edo bertze agertzea.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 1990 ITURENGO KANPORAKETA

1990. otsailak 24

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren XIX. ekitaldiari Ituren eman zitzaion hasera. Ondoren Lesaka eta Arberatzen eginen ziren kanporaketetan bezala bertsolariak honoko lan hau bete behar izan zuten:

- Agurra
- Binaka zortziko haundian ofizioka hiruna bertso
- Binaka zortziko txikian ofizioka hiruna bertso
- Bi puntu erantzun
- Bakarka gai bati hiru bertso
- Azken agurra

Saio horretan parte hartu zuten bertsolariak honoko hauek izan ziren:

- Eusebio Fagoaga
- Patxi Zeberio
- Joxe Mari Fagoaga
- Antonio Olano
- Jean Louis Laka
- Bittor Elizagoien

Gai jartzaile lanak Larretxeak egin zituen.

Saioa bukatu ondoren epaimahaiaren erabakiz bertso onenaren saria Antonio Olanori eman zioten bakarka botatako bertsoengatik.

Iturengo udalak bertzalde, bertako seme diren Joxe Mari eta Eusebio Fagoaga anaiei omenaldi gisa txapel bana eta poltsikuko ordulari bat opari egin zien.

AGURRAK

J.M. Fagoaga:

Lehendabiziko ongi etorri
hemengo zahar eta gazte
aurrean hola ikusi ezker
zein jarri liteke triste
bertsotan hasi aurretik ere
afaltzen eman digute
orain ez dakit egingo degun
zuek merezi hainbeste.

B. Elizagoien:

Ustekoe zue lasai nagola
baina nago apuruan
nere lagunak esan didate
zerbait ein zak aurtenguan
ta andregaiak ez nauela
admetituko onduan
ta amak berriz joko nauela
isetsarekin buruan
baldin azkena gelditzen banaiz
etxera ezin naiz jua.

Larratxea: Eusebio Fagoaga eta Patxi Zeberio. Iturenen bizi zareten senaremazteak zarete. Eusebio emazteak, Iruñara joan nahi du bizitzera. Senarrak, Zeberio aldiz, herrian gelditu nahi du.

E. Fagoaga:

Herri honetan jaio nintzan da
herri berean naiz hazi
nere partetik frutua ere
hementxe nahi nuke utzi
honek berriz kapital aldean
zerbait duela ikusi
elkar ezin konpondu gera ta
ia ezin det sinetsi.

Zeberio: Aizu senarra arrazoi hori
aspalditik det entzuna
baina ikusi zure andreak
daukan borondate ona
Iruña aldean nola daukagun
merkatu aldetik han dana
han ikusiko duzu bihotzez
behar dezun zoriona.

E. Fagoaga: Herri txikian ondo dakizu
denok ezagunak gera
eta Iruñan izan ezker
edozer gauzen galdera
hemen eskera joan gindezke
etxe batetik bestera
han berriz ere ibiltzen dira
ezin ikusi antzera.

Zeberio: Hor arrazoi bat egingo dizut
gaurko honetan enplasta
badatik ondo nere gizona
zuk hor dadukazun kasta
horregatikan egin behar dezu
diru pila hori gasta
eta musian egingo dezu
zuk nahi dezun arte basta.

E. Fagoaga: Ura aldetik hiri barruan
ere eginda eskastu
eta horrela andre maitea
ez zaitezela zapuztu
esan behar det nahiz eta izan
hemen gaurkoz nahiko justu
joan zaitez baina baietz itzuli
egingo nuke apustu.

Zeberio: Iruña aldera etorri zaitez
emango dizut bi musu
eta emazteai kasu honetan
ein behar diozu kasu
gizona hemen kapitalean
hamaika gauza daukazu
etorri zaitez gaur nerekin
asko maitatzen banauzu.

Larretxea: Joxe Mari Fagoaga eta Antonio Olano. Olano aita alarguna zara. Oporretatik etorri zarenean Joxe Mari semeari "Hau nere emaztea da" esan diozu. Fagoaga hasita hiruna bertso, zortziko haundian.

J.M. Fagoaga: Egun batean alargundu zan
bai nere aita maitea
ta geroztikan ikusten nuen
hor zebilela tristea
ta pentsatu nun bakaziota
hobe zenula joatea
ama bezala hartuko det nik
zure gaurko emaztea.

Olano: Ez dakit seme mesede edo
gaur egin dedan nik kalte

oporretara bidali zidan
egun batzutan aparte
amatxo zana falta dezu ta
hutsunea nahi nun bete
nik maite dudan emazte hori
seme zuk ere gaur maite.

J.M. Fagoaga:

Horrela gelditu ziñan eta
behar zenuen segira
nik e ez nizun esan hau baina
nengoen horri begira
ta oporretan joan zinen da
orain pozez etorri da
gaurtik aurrera aita ta ama
berdin izango bait dira.

Olano:

Entzun zaidazu arren zuk seme
ez nizuke nahi hutsegin
ta aita jator baten modura
orain nahi dizut hitzegin
baldin zuk bigarren ama hori
ez badezu gaur atsegin
askatasun osoan zaude gaur
gelditu edo aldegin.

J.M. Fagoaga:

Lehen fina izan zinen da
gaur ere zaude horrela
aita nik zergaitikan zu maite
danetan hori bezela
badakit aita beste ama bat
zuk ekarri dezuela
pentsatzen det amak ikusita
hau bera nahiko zuela.

Olano:

Bakardadean hara nik seme
ez nintzakela biziko
ta beste andretxo bat gabe nik
ez nuela gaur etsiko
arren zin dizut denen aurrean
arren egingo det juzko
andre berri bat ekarri arren
inoiz ez zaitut ahaztuko.

Larretxea: Laka eta Elizagoien. Idortea dela eta Laka dutxatzeko urik gabe gelditu zara. Elizagoien aldiz, bere autoa garbitzen ari da.

Laka:

Badu bi urte Euskal Herrian
haundi dela idortea
gure etxean ura eskastuz
baderaukagu kaltea
fagoretxo bat galdatzen dautzut
hemendik Bittor maitea
zure autoa alde bat utziz
enetzat ura uztea.

B. Elizagoien:

Kotxe berria nola daukaten
hori nere krabelina
nere izerdiz egun batean
nolabait ere egina

urikan gabe dagola eta
gizon honek duen mina
zu dutxatuko zinen gaur ere
gizon garbia bazina.

Laka:

Kezkagarria Euskal Herrian
idorte hau daukaguna
ur eskasian egin beharra
bait dugu gau ta eguna
nola Bittor hau nere auzoan
aspalditik den egona
kotxeak hainbat garbitasunik
mereziko du gizonak!

B. Elizagoien:

Kotxe kontua alde guzitan
gaur honek hor aipatzen du
baina urikan sekula santan
honi ez diot ekendu
zikina data zikinkerian
egiten bait du mantendu
baietz garbitu ura ardoa
bezain maitea bazendu.

Laka:

Zure kotxea garbitzerikan
ez dautzut debekatuko
ta zoritxarrez orain lasterrik
ura ez da hemen hartuko
beraz, zuk Bittor ene beharra
orain duzu ulertuko
bestenaz ene etxetik dautzut
nik ur txuloa moztuko.

B. Elizagoien:

Bere zikina nola daukagun
hori beraren ajia
aurpegia du beti zikina
gero ura eskasia
barrutik hainbat zikin daduka
kanpotik berriz trajia
nere dirutik emango dizut
berrogei litro lejía.

Larretxea: Orain zortziko txikian arituko zaizkigu bertsolariak. Elizagoien eta Eusebio Fagoaga. Ihauterietan gaude.
Zer disfraz erregalatu behar diozue elkarri?

B. Elizagoien:

Ihauteriak dira
hauetxek zaratak
mozorrotzeko ere
ez gara apartak
belarritan baditu
urre eta txapak
emango dizkot orain
punkien zapatak.

E. Fagoaga:

Jersea haundigia
ta gorriak galtzak
honek apaindu behar
egindako saltsak
tori bi larru eta
gusto onez har zak

hi baino finagoak
badirade artzak.

B. Elizagoien:

Belarritakoekin
hauxe ijitoa
hola azaltzen data
hori betikoa
eta egitekotan
punki konpletoa
bakarrik faltatzen zaik
hortxe kanutoa.

E. Fagoaga:

Ez itzazue egin
irri edo parrak
hau artzaz beztitzeko
baditut txatarrak
etxeko sabaian ere
badira larru zaharrak
to lehen esan duena
andregaiian adarrak.

B. Elizagoien:

Adar kontua ere
honetxek esana
eta horrelakoa
dadukaten plana
punki izatea da
beraren afana
gainera bera degu
denen kapitana.

E. Fagoaga:

lhauteriz Lesaka
joan behar goizian
ta planta ederrakin
honuntz etortzian
ta nahi nuke gustora
zauden zu jantzian
dotorea badaukat
txekor pizontzian.

Larretxea: Ondoko ariketan bertsolari bakoitzak bi puntu erantzun beharko ditu. Bittor Elizagoienentzat bi puntuak honoko hauek dira:

Larretxea:

Euri ttanttarik ez da
joan den aspaldian

B. Elizagoien:

Hemen gabiltza orain
hain une larrian
urikan gabe gaude
gu Euskal Herrian
iduri du gaudela
gu Andaluzian.

Larretxea:

Hor pareko neskatxak
begi beltz ederrak

B. Elizagoien:

Batzuek zuzenak ta
besteak okerrak
nere ideak dira
guziak alferrak

mutil zahar bait gera gu
Jainkoai eskerrak.

BAKARKA

Larretxea: Bakarka aritzeko, Olano, zure gaiak honela dio: "Etxeko atarian, oihal artean haurtxo jaio berria topatu duzu". Hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan.

Olano:

Ene umetxo zuri kantatzen
baldin baneza asmatu
ataritxoan negarrez nola
zaitudan hola aurkitu
ikusi hutsak bihotza ere
bi aldetatik partitu
ezin naiz hola gelditu
beharko zaitut goratu
arren umetxo zatoz nerekin
nahi zaitut gaur etxeratu
han utzi duen emakumeak
bizitza merezi al du?

Bi aldetara zatiturikan
inpernua ta zerua
Judas alde batetikan dago
bestetik berriz Jainkua
zer esan nezake nik ikusi
dedala hortxe haurtxua
nekatu zaida burua
hau da hau! gaur pekatua
bakarrik hemen negarrez zaude
erabat zu baztertua
zoritxarrean era honetan
aurkitutzen da mundua.

Azken aldiz kantatuko dizut
hara zuri txikitxo
nolatan zauden ikusirikan
ez al da hori gehitxo?
nork utzi ote zaituen hemen
esan arren zuk haurtxoa
ekarri zazu musua
zabalduko det besua
biberoia nik emango dizut
ez daukat eta petxua
baina gaur umetxo zu izango
zera etxera jasua.

Larretxea: Laka hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian kantatzeko gaiak honela dio: "Ilea urdintzen hasi zaizu".

Laka:

Gizon denentzat bizimodua
ez da izaten berdina
batzuk gorputza lodia dute
beste batzu aldiz fina
nik gorputzetik bakarrik ez dut
nehoiz hartzen atsegina
ez zaut inportik nahiz biloa
bilakatu den urdina.

Goizetik arrats lanean ariz
etortzen da jakitura

ez jakin gauzak nola doatzen
ere badut arrangura
baina bizi naiz halarik ere
beste askoren modura
baina biziak duen beldurra
kendu daut bilo beltz hura.

Gazte denboran ukana dudan
biloa ez dut ahantziko
nahiz kolore hain polit harek
orain nauen ni utziko
ez dut hargatik ene esperantza
nik lurpean ehortziko
bilo guzia galdurik ere
alaiki bait naiz biziko.

Larretxea: Hiru bertso kantatzeko gaia hau duzu Bittor: "Urtetan aitzinera zoaz eta amak erran dizu ezkontzan pentsatzen hasteko garaia duzula".

B. Elizagoien:

Garai batean parrandan ni re
ibiltzen nintzan hain errez
baina gaur egun ustez zertxobait
banintzan eta ezer ez!
garai bateko sobra guziak
egin didatenez ihes
maitasunikan baterez
andretxo baten eskean zaude
ama maitea negarrez
ezin dut eta ama maitea
barka zaidazu mesedez.

Gazte denboran neskarik neska
hura zan nere azaina
ligatzen ere egia esan
nintzan eta ni bikaina
baina oraintxe bakarrik nago
zaulia daukat mingaina
baina inor ez engaina
harroei ere gure Jainkoak
hartzen bait die tamaina
orain kobratzen ari naiz hemen
harrokerien ordaina.

Zahartzarorako asilo etxe
bat beharko dut prestatu
eta neroren harrokeriak
hantxetan bertan uxatu
nahiz eta ama zure semea
bihotzez hainbat maitatu
eskaera dut ukatu
hala ta guziz ondo nagota
hemen egiten naiz poztu
mundu honetan gure Jainkoari
gehio ezin dut eskatu.

LESAKAKO KANPORAKETA

1990. martxoak 3an

Nafarroako Bertsolari txapelketa honen bigarren ekitaldia Lesakako "Arrano Elkartean" jokatu zen. Iturenen bertsolariek izan zuten egiteko bera izan zuten hemen ere Larretxea gai-jartzailearen eskutik aritu ziren bertsolariek. Bertan parte hartu zuten bertsolariak honoko hauek dituzue:

- Anjel Martikorena
- Joxe Mari Aizagirre
- Moisés Jaso
- Bautista Madariaga
- Bautista Perurena
- Xalbador Madariaga

Saioa bukatu ondotik, epaimahaikideen erabakiz Anjel Martikorenari eman zitzaion bertso onenarentzat zegoen saria, eta saio bitxiena edo umoretsuena egin zuenarentzat saria Bautista Madariagak jaso zuen.

Aizagirre:

Lehendabiziko bertsotan hasiz
etorria naiz Lesaka
astelehenian deitu zidaten
eta gainera presaka
etorria naiz honera eta
egin sekulako aseka
bihotzez anaiak hartu zazue
eskeintzen dedan besarka.

Perurena:

Agurtu nahi zaituztet
zahar eta gazteak
entzun zer esaten dun
goizutar trasteak
guretzako zabaldu
dituzte ateak
eskerrik asko anai
ta arreba maiteak.

X. Madariaga:

Alde batez beldurra
beste era kezka
hemen heldu gerala
txapelan galdezka
beiratu ta gazterik
inon ere ezta
gaur esan leike dala
jubilatuta besta.

Larretxea: Batista Perurena apezka zara, zu berriz Xalbador Madariaga baserritarra. Zu Perurena, baserritarraren lurrak bedeinkatzera joan zarenean Madariagaren zakurrak kozka egin dizu. Hiruna bertso zortziko haundian Perurena Hasita.

Perurena:

Apaiza hoi ena izaera hau
izan da oso laburra
egi garbia esaten det gaur
hori ez dala gezurra
honen etxera joan nintzanean
eraman nuen bildurra
oilaskotxua eman biharren
askatu zidan zakurra.

X. Madariaga:

Ebanjelio lodi bat ere
eraman zuen lepuan
baina txakurrak begiak argi
baita behar den lekuan
ez zen ezerre bere errezua
ongi egin izan bazuan
zakurrak ozka egin bait zion
ijitua zalakuan.

Perurena:

Arrazoi dena nerekin det ta
nun-nahitik dizut helduko
zuk diozun otoitz hoiekin
apaiz hau ez da salduko
konduta ona izandu det ta
orain ez det ba galduko
neri pagatutzen ez banazu
kosetxik ez dezu bilduko.

X. Madariaga:

Ijito bat zen bendizua
behetik ematen hasia
orain errezua izan ere hok
egiten dute txikia
ur piskat goitik botatzen dute
hoi bendizio guzia
bialdu beharra dago hemendik
sotana duen guzia.

Perurena:

Aizazu lagun esan dezun hau
ez da arrazoi zuzena
obligaziok behar bezala
kunpli itzazu aurrena
hemen gezurra esanda ezin
bukatuko degu dena
nahiz ta hau bera ijitua izan
apaizarentzat izena.

X. Madariaga:

Bedeinkazio hoi izango zan
zuen failorik txikina
ni izan nintzan hango txakurra
hoien berria nakina
gaur egun nola diran apaizak
hemengo alferrik haundinak
bedeinkatzera etxera joan zait
meza ematen ez zakina.

Larretxea: Moisés Jaso eta Bautista Madariaga. Moisés, orain urte bete etxea erosi zenion Bautsita Madariagari.
Orain teilatua goitik behera erortzen hasi da.

M. Jaso:

Batek jakin behar du
etxea erosi non
nik hori eresia
kolpez egin nion
teilatua erortzen
hasi da, hor konpon!
neri ez dit inportik
pagatu ez bait nion.

B. Madariaga:

Orain dala urte bat
bai erosi zuan

baina xentimorikan
pagatu ez zuan
tratua egin nuen
nik leku faltsuan
nahiago nuan beraz
behean hartu bazuan.

M. Jaso:

Tratua eskasa egin
genun nolabait e
baina aurrerapena
eman nun zerbait e
Batista faltsu izan arren
bihotzetik maite
etxea erori da
hor konpondu zaite.

B. Madariaga:

Etxea erori ta
nik pena dut hori
xentimorik tratuan
ez bait da ageri
lehen egin det halako
hamaika tonteri
etxea saldu diot
arratoi bateri.

M. Jaso:

Hamaika bat bider gu
elkarri jarduna
gaur baino gehiagotan
hitzegin genduna
hauxe fina zala nik
uste nun laguna
etxea ez dizut ordainduko
balio ez duna.

B. Madariaga:

Nahiz etxe zaharra izan
ni nintzan nagusi
dirurik gabe dagon
batek dit erosi
orain erori da ta
neretzat desgrazi
hobe nun sekula hau
ez banu ikusi.

Larretxea: Xalbador Madariaga eta Martikorena senaremazteak zarete. Hondartza nudista batera joan eta, Madariaga, senarrak alde egin nahi du. Martikorena emaztea erropak kentzen hasten da.

X. Madariaga:

Leku txarrera emazte
gu hemen baguzi
ez nakin nik leku hontan
zer zagon lehenbizi
nahastea izaten da
beti hemen nagusi
ni aldatzera noa zuk
nahi baezu erakutsi.

Martikorena:

Nere senarra bait da
antigulekua
oraindik ez dago hau
ongi prestatua

hemen ikaratu ta
ihesi dijua
nik luzitu nahi bait det
gaur nere tipua.

X. Madariaga:

Nik bazter honetara
egin nahi det jira
lehen asko egondua naiz
zerorri begira
nik zer ein nahiko duten
kontuatzan ez zira
zu egon, ni banijua
gaztegon tokira.

Martikorena:

Asko maite zaitut ta
ez zaitut utziko
zurekin ezkondua
ni bait naiz betiko
esate izut ihesi
orain ez juateko
nik kendu arte behintzat
"Cruzado Mágico".

X. Madariaga:

Arropak kendu ditu
hain dago itsusia
larru gorri lehen ere
zaitut ikusia
eta aprobetxatua
zuk dezun guzia
ez al zara lotsatzen
zuritzen hasia?

Martikorena:

Batzuek oso gizen
ta besteak finak
ez bait gera guziok
gu berdin eginak
erakutsi itzazu
zure poxpolinak
nik erakutsiko itut
nere mitxelinak.

Larretxea:

**Batzu negarrez eta
bertze batzu irriz**

Aizagirre:

Horrela gaur ere
eongo dira berriz
bertsuak botatze itut
bihotzez ta egiz
baina zuk apuntatu
zaizkidazu neurriz.

Larretxea:

**San Ferminetan hemen
berriz afaria**

M. Jaso:

Uste dut hori dela
gure oparia
Naparruan eiten da
sobrante garia
afaria ezikan

nahi degu bazkaria.

Larretxea:

**Etxera bueltatzeko
izanen da lana**

M. Jaso:

Ez det sinistatutzen
orain zuk esana
gezurtia zerala
nago antzemana
inor gabe lehen ere
ni bait naiz juana.

Larretxea:

**Urte mordoa baina
bihotza gaztea**

B. Madariaga:

Lehengoa mantendu ta
nahi nuke bestea
ez al da animua
zahartuta hastea
zu alferrik galtzen zaude
mutil zahar tristea.

Larretxea:

**Baserrian lan asko
eta diru gutxi**

Perurena:

Hala ere lanean
oaindik ez det etsi
nere bizkarrik ez da
lanetikan hautsi
bueltak izango dira
bihar edo etzi.

Larretxea:

**Zurruta ere txarra
neurritikan gora**

X. Madariaga:

Burua jartzen du bai
zintzotik erora
hori ezagutu det
zahartuta gerora
ojala ezautu banu
lehenoko denboran.

Larretxea: Martikorena ehiztaria zara. Ehizean zabiltzala zerbait mugitu da sasi artean. Basurdea ote dan edo hiru tiro bota dituzu eta zeure zakurra hil duzu.

Martikorena:

Tiro honekin jarri naiz
larri eta izu
txakur bihotzekoa
zuk pagatu dezu
zaunka egin bazendu
ta egin abixu...
orain txakur maitea
barkatu zaidazu.

Ikaragarrikoa da
nik egin dedana
txakurrari eman diot
tirorik haundina
eta seko hil det nik

txakurrik onena
ez zait sekulan joango
bihotzeko pena.

Ehiza utzi behar det
beti betirako
gaur egin dedana sekula
ez bait zait ahaztuko
zakur maitea ez det
gehiago piztuko
baina sekula eskopetik
nik ez det hartuko.

ARBERATZEKO KANPORAKETA

1990. martxoak 11.

1990. Nafarroako Bertsolari Txapelketa honen lehen faseak, Arberatzen eginiko saioarekin izan zuen amaiera. Gai-jartzaile lanak Iriederrek egin zituen. Bertan parte hartu zuten Lontxo Aburuza, Xalbador, Arrosagarai, Amorena, Olaziregi eta Mihura bertsolariek. Xalbadorrek berez ez zuen Arberatzen abestu behar, baina (lehen aipatu bezala "Errexil" bertsolariaren) ordezeko lanetan aritu zen, nahiz epaimahaiak bere lana ez zuen ezertarako ere kontutan hartu alde aurretik bigarren faserako bait zegoen.

Arberatzen ere bertsolariek, aurretik Ituren eta Lesakan jokatu ziren kanporaketetan bezala agurra, ofizioka zortziko haundian eta txikian hiruna bertso, bi puntu erantzun eta bakarkako lanean gai bati hiru bertso bota behar izan zizkioten.

Irieder: Aburuza eta Arrosagarai. Arrosagarairi etxeko ahuntza desagertu zaio. Aburuzak bazkaltzera gonbidatzen du eta Arrosagaraik hor aurkitu uste du berari ebatsi dioten ahuntza. Hiruna bertso zortziko txikian.

Aburuza:

Urtean behin daukagu
holako aukera
eta bildu gindezke
herria batera
zerbait sabelerako
nola den plazera
jai hartuz zatoz lagun
lasai afaltzera.

Arrosagarai:

Aise nindaike beraz
jitera bentura
agertu duzulakotz
zure arrangura
gomit hori egina
duzia gostura
preparazia duzu
eni ebatsi hura.

Aburuza:

Badakit baduzula
ahuntz bat ebatsia
lasaitu zaite arren
nere nagusia
afari on bat ez da
bate itsusia
ahuntz hau dadukat noski
lehendik eresia.

Arrosagarai:

Adiskidea dautzut
egun erran pogo
hola zu ikusita
harriturik nago
holakorikan otoi
ez ein gehiago
galdegitea ez ote
zagon politago.

Aburuza:

Errandako guzia
gaizki iruditzen zat
jende aurrean hartu
nauzu ba lapurtzat
afari ederra da
guztientzat behintzat
eta eskeintza berdina
hor doa zuretzat.

Arrosagarai:

Gozo bait zaitut egin
daukat gogoeta
gizon bezela hasiz
orain pentsaketa
ene ahuntza hola
orain ebatsi eta
barkatuko dautzut nik
ongi afalduta.

Irieder. Xalbador eta Amorena bi laborari zarete eta artoa egiten duzue. Zuk Xalbador, zure artoa ureztatzen duzu, zuk Amorena zurea ez.

Xalbador:

Idortea ikusiz
kezkatua nago
urteak bait doatza
gero ta txarrago
zure landan baduzu
zuk artoa frango
baina nere hori da
aisa ederrago.

Amorena:

Horrela hasi eta
ez ditut pakeak
pruebak hortxe dira
zabal ta erreak
zure artoak hortxe
gaur lorez beteak
hanka luzeak eta
bururik gabeak.

Xalbador:

Bere artoa hunek
begira dezala
eneak ere badu
zango ta azala
bere landa begira
berak ein ahala
buru haundi hutsa du
nausiak bezala.

Amorena: Horrela goazi gu
gaur gure modura
eta itzuli behar
gaur zure ondura
ez da balio ematea
artoari ura
merkatuan saltzen bait da
hor buru kontura.

Xalbador: Artoak ekarrarazten
daukat arrangura
hortaz kezkatua ni
bizi naiz ardura
gauza bat ikusi dut
hain bait da segurra
artoa biltzekotan
behar dugu ura.

Amorena: Horretan erran duzu
bihotzez egia
zeren gertatzen gera
hor arto zalia
zertako guk ibili
hainbat fantasía
elkartuta ein dezagun
artodi berria.

Irieder: **Aurtengo negua da
uda iduria**

Aburuza: Hargatik legorturik
daukagu mendia
Iriederrek dio
egi bat garbia
nola bazkatuko da
zelaiko ardia?

Irieder: **Andrea merkatutik
etortzen denean**

Amorena: Gauza frango sartzen da
nere sukaldean
hitzik ezin esan diot
nik ere azkenean
dirurik gabe hortxe
dator gehiengan.

Irieder: **Amikuze aldean
ez dago mendirik**

Olaziregi: Euskadin ez daukagu
ez horrelakorik
nahiz ez dudan ezagutzen
mendiko zokorik
ez det uste Frantzian
dagola hoberik.

Irieder: Aburuza behi esnea duzu ogibide. Gaur esne salmenta uzteko agindu dizute.

Aburuza:

Txikitatikan bide honetan
nolatan nintzen jarria
hortatik zegon familirako
beti diru etorria
esnea da sobratzen
ezin dutela saltzen
hain une penagarria
batzun agintez pikutaraino
doa nere baserria.

Goitik egurra eraso dute
goitikan da kazkabarra
eta alferrik galtzen dioa
baserritarren indarra
behar gendun laguntza
bidalia haruntza
eta alferrik marmarra
orain famili guzira dugu
zabaldurikan negarra.

Penagarria esan bezela
daukagu etorkizuna
alde denetan begiratuta
bidea dago iluna
zertako hasi hontan
bukatu nahi bertsotan
baina paraje astuna
norbaitek behintzat beteko al du
sortua zaigun hutsuna!

Irieder: Amorena gizon alarguna zara. Zure alaba bakarrak etxetik badoala erran dizu mutiko batekin bizitzera.

Amorena:

Ez nuen uste nik entzutea
horrelakoxe berria
eta alabak egina bait nau
horrelakoxe kaltia
beretzat ondo ikusten bait du
gerorako bizia
bai eta ere pena hartzen du
neri bakarrik uztia.

Gaur haren hitzak nik entzun eta
esana diot egia
ez zazu pentsa hortan akabo
dela gu bien bizia
ongi badakit bizitzarako
zuk badezula maitia
eta nik berriz zuek biendako
etxean badet tokia.

Ni utzi eta bazoaz baina
etxean zaitut nik hazi
eta ez dakit gaur bapatean
zergaitik zoan ihesi
ongi badakit nik maitasuna
eta zer duen eskasi
gaurkoan zure aita bakarrik
ez nazazu hemen utzi.

Irieder: Pariseko ferietan, ebatsi zizuten behia aurkitu duzu.

Mihura:

Ni Pariseko ferietarat
holaxet egin aldia
Euskal Herritik feri horrer
botaturikan begia
bi aldetarat joan naiz bada
ni ikusterat feria
eta alde batetik hortxetan
hara non zagon behia
aintzinatikan gauza horrentzat
nuen bada ere ideia.

Txanjerako bai batzuek dute
hola izan talentua
baina hor jakin ni ere ez naiz
hortan bate kuzkurtua
badakit bada orai hobeki
nondik zen ebastekua
ta luze gabe norbaitek hori
beharko du aitortua
ezen ebasle nik susmatzen dut
hola dela auzokua.

Auzoko horrek egina badu
hori dula pagatuko
Pariseraino joan naiz eta
hortan ez dut barkatuko
gerorat horrek bide horrer
hobe dio egin uko
ezen hain laster ikusi behar
gaur zer zaion gertatuko
ezen Pariseraino ereman
baina ez aberastuko.

Arberatzeko saioaren bertso onenaren saria Lontxo Aburuzari eman zion epaimahaiak bakarka eginiko lanarengatik.

EZPELETAKO KANPORAKETA

1990. martxoak 18an.

Hitzaurrean adierazi dugun bezala, Ezpeletako saioekin eman zitzaion hasera Nafarroako Bertsolari Txapelketa honen bigarren faseari. Bereiztasun nagusia, hemendik aurrerako saioetan bertsolariek taldeka egin behar izan zutela lana.

Ezpeletako saio hau herriko pilotalekuan egin zen 250 ikusentzuleren aitzinean, gai jartzaile Irieder izan zelarik. Azpian bi taldetan sailkatzen ditugun bertsolari hauek hartu zuten parte:

A taldea: -Mixel Xalbador
 -Bittor Elizagoien
 -Lontxo Aburuza
 -Jean Louis "Laka"

B taldea: -Jesus Arzallus
 -Joxe M. Argiñarena
 -Joanes Arrosagarai
 -Joxe Mari Fagoaga

Epaimahaia sei lagunek osatu zuten: Aingeru Epalza, Jean Pierre Etxegoien, Mikel Bujanda, Emile Larre, Joxe Urroz eta Fermín Mihurak. Hauen erabakiz "A" taldekoak pasa ziren Goizuetarako saio nagusira, beraz, Xalbador, Elizagoien, Aburuza eta Laka. Bertzalde, eguneko saiorik onena egin zuenaren saria Jesús Arzallusek eskuratu zuen, eta bertso onenaren saria berriz Joxe Migel Argiñarenak.

Egin Beharreko lanari dagokionez, bertsolariek Ezpeleta, Lekunberri nahiz Goizuetan honoko lan hau zuten:

- Agurra
- Hamarreko nagusian binaka bi bikote
- Zortziko nagusian binaka bertze bi bikoteak
- Zortziko txikian binaka lau bikoteak
- Bi puntu erantzun talde bakoitzetik batek
- Lau oinak emanik bi bertso osatu talde bakoitzetik batek
- Bakarka, talde bakoitzeko bi gai banarekin
- Gartzelako lanean, taldeko bakoitzeko bertze biak:
 - Azken puntua eman eta bertsoa osatu
 - Gai bati hiru bertso neurri eta doinu librean
- Azken agurra.

AGURRAK

Xalbador:

Berriz ere txapelketa
gainean daukagu eta
hemen nago pentsaketa
nola poztu entzuleak
nola poztu Ezpeleta.

Elizagoien:

Agur Ezpeleta ta
agur bat publiko
bertso lanean ere
al gera hasiko?
bikote bat ez dut nik
bazterren utziko
musu on bat izeba
Xani lehenbiziko
eta besarkada bat
osaba Benito.

Laka:

Lehen lehenik hasi behar dut
arratsaldeon erranez
bertsulariek bertzek bezela
egin izan dugu amets
gaur taldekako ariketari
nola erran dugun baietz
oi! entzulea satisfatzea
ez da izanen hain errez
eginahala egingen dugu
eiten dizuegu promes.

Aburuza:

Zortzi bagera kantuan eta
Mixel koplari bezela
pentsatu ni 're nere mailakin
hemen saiako naizela
beste taldea ez da aurkitzen
motela edo txepela
hala ere nik hartu nahi nuke
Goizuetako txartela.

Arzallus:

Egia edo gezurra baina
hara nik zer jakin detan
hamabi urtez bertsolaririk
ez dela izan Ezpeletan
horrela bada arratsaldeon
herritar denei benetan
gaur zortzi lagun etorri gera
zaituak bi taldetan

baina batuak euskera eta
bertsoaren mesedetan.

J.M. Argiñarena:

Arratsaldeon ta ongi etorri
nere sari berezia
bertsozale zaretenontzako
opari berezia
erdi poz eta erdi penetan
burua daukat nahasia
gaur Ezpeletan ikusi eta
euskeraren eskasia
ia gaur bertsoz piztutzen degun
hizkuntz zaharraren zuzia.

Arrosagarai:

Gogora deusik ez zeraut heldu
eta nago pentsaketa
talendu gehiau beharra nuke
bazkari on egin eta
entzulea gaur izanen bait da
gore bihotzeko suieta
agur bihotzez entzule denak
ta agur zuri Ezpeleta.

J.M. Fagoaga:

Gaurko honetan kantatu behar
guk ondo tripa beteta
lagunak hori esaten zuten
hi lasaitu bazkalduta
baina tripa ere dardaran dago
ta buruan berdinduta
aurrena behintzat ongi etorri
gaurkoz zuri Ezpeleta.

Irieder: Hamarreko haundian aritzeko gaia Xalbador eta Arzallusentzat. Zu, Mixel Xalbador, ezkondu nahi duen gaztea zara, baina diru faltan zaude. Zu, Arzallus, mutil zahar aberatsa zara.

Xalbador:

Adin batean kontzientziak
ezkontza galdatzen digu
nik ere nahi dut ezkondu baina
badauzkat hainbertze trabu
geroxago ere hortako segur
badakit nukela ordu
baina oraitik nahi nuke eta
zaite nitaz urrikaldu
gogotik ezkont nindaike banu
maitasun bezanbat diru.

Arzallus:

Ikusten danez Xalbador honek
neska gaztea du maite
oraindik oso gaztea zera
eta lasai egon zaite
zurekin gero ere neskatxak
hartu bait dezake parte
lana egin zintzo oraindik ere
gutxienez hamar bat urte
otoi ez zaitezela ezkondu
piskat aberastu arte.

Xalbador:

Ez da nik uste urrikalduko
gure aberats haundia
ez du hasteko gogozko izan
nere galdezko aldia

nik ezkontzeko oraindik ere
daukat zinez errabia
ni ulertzero errespetuzko
gizona zaite abia
ez ote data aberastasun bat
ezkontzeko nahikeria.

Arzallus:

Donado baina dirua dun bat
zure ondoan daukazu
entzun da gogoan gorde otoi
nik erranik zenbait mezu
donaduak 'e diruarekin
maitasuna dugu usu
zu gazte batekin hor zabiltza
beti festa, beti musu
maitasuna ere galdu liteke
dirurikan ez baduzu.

Xalbador:

Probetxurik ez duket naski gaur
ezkontza galdatzen ariz
berdin du naski behin galdatu
edo galdatu bortz aldiz
gizon xahar jabetua da
gaur aberastasun haundiz
urrikalduta noizbait nerekin
bera ezkonduko balitz
hunen sosetaz jabetu eta
ezkont nindaike ni berriz.

Arzallus:

Aspaldi hontan nola dabilen
esposatu nahiz peskisan
ta ondo konpondu liteke hau
nere poltsaren gerizan
ikusten dezu dirua dunak
munduan nola dabiltzan
oraindik esposatu ez hortaz
ez zazu damurik izan
gero ere aspertuko bait zera
esposatuen bizitzan.

Irieder: Hemezortzina urteko neska mutilak zarete. Elizagoien neska eta Argiñarena mutila. Lagun minak zarete aspaldi honetan, baina non eta horra neska haurdun gelditzen da. Zer egin behar duzue?

Elizagoien:

Alkarrekin guk gendun maitasun
hori ez bait zen apala
pasatu dana pasatzea da
gaur egun gauza normala
gazteak gera sasoi onean
eta bikote formala
umetxo hori haziko dugu
hemen nola edo hala
gore aita-amek guri biori
hazi ziguten bezala.

J.M Argiñarena:

Hamabost urte edo hamasei
gu egin ginala lagun
beti batera pasa ditugu
hainbeste gau eta egun
ongi konpondu izandu gera

beti goxo eta bigun
gertatu dana ongi etorri
geurekin hartu dezagun
maitetasunez egindakoa
maitasunez hazi zagun.

Elizagoien:

Horregatikan lehen bezelaxe
maitasun horrek segitu
maitasunaren bide zuzena
ezin bait degu gelditu
umetxo horrek gure ondoan
kristoren pozak baditu
eta mundua bide hortatik
ezin liteke amaitu
gure herria buka ez dadin
haur gehiago behar ditu.

J.M. Argiñarena:

Neroni ere asmo on batek
gazte izanik narama
oraindik hemezortzi urte ta
badegu zertan emana
zer ditxa degun izatea haur
baten aita eta ama
maitasuna da ene maitea
etorkizunaren arma
hartu bezala eraman zagun
orain bilau degun zama.

Elizagoien:

Zama horixe eramateko
kapaz gaude oraindano
eta horixe eramateko
badugu hainbat enpeino
biok ere guk maitatzen dugu
azken ile puntaraino
eta haurtxoa etorri dedin
naturala eta sano
haurrak bizi hobea bait da
bakardadez triste baino.

J.M. Argiñarena:

Zoragarria izan behar du
ireki dugun bidia
ta zihur nago gure emaitza
izango data argia
geroko zuzen bete dezagun
abertzalien legia
bularra goxo eman zuk eta
gero euskera garbia
ta nik etxera ekarriko det
hirurontzako ogia.

Iridier: Mixel Xalbador aita zara, zu Joxe Migel Argiñarena hamabi urteko seme koxkorra. Biok telebista ikusten ari zarete eta bapatean bikote bat agertzen da amodio goxaketan. Zuk Xalbador semeari alde egiteko erraiten diozu. Hiruna bertso zortziko txikian aita hasiko delarik.

Xalbador:

Zuzen bait da aholku
baten emaitza
adi nezazu otoi
zuk seme maitea
nahiz jarriko ziren

benturaz tristea
hobe duzu ageri
dena ez ikustea.

J.M. Argiñarena:

Aita-semeak hemen
elkarren onduan
telebistari beira
geunden txit giruan
neri joateko dio
zakurren moduan
zuk ikusi gabe hori
ikasi al zenduan?

Xalbador:

Gauzak denborak dauzkit
bai erakatsiak
konformatuko gira
benturaz gu biak
zu horren ikusteko
ez argi begiak
gauza hoiek ez zaizkit
sobera garbiak.

J.M. Argiñarena:

Aita hau beti beraren
setarekin dago
baina ni ere nere
iritzian nago
ikusten det zoazela
gero ta tontoago
zure semek badaki
hori ta gehiago.

Xalbador:

Nik uste baino hunek
gehiago dakita
nundik egina ote
zira hoin artista!
aita edo semea
ez dadien trista
bakearentzat bertan
itzal telebista.

J.M. Argiñarena:

Aita honek beretzat
begitako pozak
telebista horretan
gauza aproposak
semeak gero pasatzen
dituen lotsak
kristonak ziran bart 'e
ohe zaharraren hotsak.

Irieder: Arzallus bizarra egitera joan zara Aburuzarengana. Aburuza bizargina zira, eta zure ganibetarekin lanean ari zarenean, Arzallusi egundoko ebakia edo pikoa egin diozu aurpegiari.

Arzallus:

Bizarrarekin ez nun
egon nahi betiko
ideia bat buruan
sartua nun tinko
labana sartu bait dit
gaur erdi erdiko

jakin izan banu ez
nintzan etorriko.

Aburuza:

Bizarrakin zeunden zu
oso dotorea
ia dirudi zendun
gure basurdea
ni lanean hasi naiz
begira ordea
egin dizudan hori
ez da ez grabea.

Arzallus:

Ni mutiko polita
bait nengoen aurrez
gaur hori sendatzea
ez da horren errez
bere labanarekin
funtsik ez du batez
aurpegia pikatu
bizarraren ordez.

Aburuza:

Ni fin hasia nauzu
begik irekita
zu geldikan ez zinan
hortxe eserita
hala ere jartzen zaitut
mutiko polita
hori apainduko det
tirita jarrita.

Arzallus:

Nahiko tirita badu
gaur bere aldean
kolonia eman dit
belarri parean
a zer! pulamentua
dadukan lanean
kontent hala ere lepoa
utzi didanean.

Aburuza:

Oraindik ez du galdu
horrek ahalmenik
eta nik ere noski
det itxaropenik
lanean jarrai nahi dut
fin serio bai nik
eta gaurkoagatik
uzten dizut dohainik.

Irieder: Laka, baserritarra zira, zu aldiz, Arrosagarai, baserriko zerri gizona. Zerria hiltzeko garaia iritsi dela eta ganibeta hartu eta zerriarengana joan zira zu Laka.

Laka:

Aurten ere negua
dugu etorria
aragiz bete nahi
nuke baserria
bururatzen hasia
dugu janaria
odol ustu behar dut
gaur nere zerria.

Arrosagarai:

Ni hiltzera jina
zira zu argiko
ganibeta dautazu
zintzurrean sartuko
jakin nahi nuke hauxe
dagonez egiko
aski ukanen nuzu
ni urte guziko

Laka:

Dakizu aserikan
egona zerala
zure biziak orai
buka berehala
zintzurpetik sartuko
diot nik nabala
nolaz bere bizkarra
deraukan zabala.

Arrosagarai:

Zutan orai artean
goserikan ez zen
ez ote zira zuhaur
gaurkoan nabartzen
behin betikotzat ni
nauzularik hiltzen
txingarra gutxi dut ta
badut anitz gizen.

Laka:

Badakit engoitik zu
ez zira gizenduko
beraz kilo berririk
ez duzu hartuko
txingar gorri gutixko
zertan dut salduko
debaldetan ez zaitut
artoz mantenduko.

Arrosagarai:

Nitan ez dira izan
ez txingar gozoak
solasak al dituzu
gaur azkenekoak
azkar behar dituzu
bihotz ta gogoak
bai eta azkarrago
zure ahokoak.

Irieder:

**Eder ta traidorea
itsaso zabala**

Xalbador:

Martxoa data dugu
bero berehala
badakit jendea
amainatzen dabiltzala
itotzetik Jainko onak
begira ditzala.

Irieder:

**Etxean baino hobe
plazetan kantari**

Xalbador:

Hori erran dio berak
dakienari
zerbaitegatik naiz ni gaur
ere hemen ari
izan nahi bait dut jende on
hauen serbitzari

Irieder:

**Gainean dugu beti
nagusi maltzurra**

J.M. Argiñarena:

Zuk esan duzun hori
ez da ez gezurra
baina nik egin behar det
joera apurra
txikituko 'iot burua
hartuta haitzurra.

Irieder: Laka lau oinek zuretzat honela diote: **AITZAKIA, TOKIA, EGOKIA** eta **EUZKIA**.

Laka:

Ezpeleta hautatu
egungo tokia
aitor dezagun barne
hau da egokia
gainera kanpoan hor
dago iguzkia
bertsuta ez jiteko
nork du aitzakia?

Irieder: Arzallusentzat lau oinak: **BAINA, AINA, ALAJAINA** eta **ORDAINA**.

Arzallus:

Jende piska bat heldu
honuntz alajaina
hala ere ez aurrez
pentsatu zen aina
aspaldin inor hemen
ez zen izan baina
gaurkoz Ezpeleta honek
badauka ordaina.

Irieder: Bertze lau zuretzat Arzallus: **SOBERA, BERBERA, AUKERA** eta **ATERA**.

Arzallus:

Gaur ere dugu beti
den lelo berbera
entzuletik ez dela
etorri sobera
baina izango dute
berriro aukera
bertsolaritza behar
aurrera atera.

Irieder: Aburuza hiru bertso bota behar diozu moztu behar duten berrehun urteko zuhaitzari.

Aburuza:

Ikusirikan arbola
nere aurrean dagola
negar mardul dariola
pentsatu gero une hometan
ezin naiteke kontsola
ez pentsa gero hori kentzea
denikan hemen kirola

urte askoan aritu zera
banatzen zeure odola
era hontan ezin da bota
berrehun urteko arbola
eta hargaitik ezin nezake
pena kendu nik inola.

Negarrez nauzu hasia
zu era hortan ikusia
hainbat urtetan hazia
banatu duzu hazia
Euskal Herriko zuhaitz askoren
artean zera nausia
une honetan zu botatzea.
dutelako berezia
hemendik gogoz bota nahi nuke
ekoloji garraisia
iruditzen zait ez dela hori
herriaren gutizia
berriro ere bana ezazu
beste askoren bizia.

Arrangura edo pena
notiziak dakarrena
nahasturik neure barrena
nork eman digu agintea ta
nork eman ote ordena?
pentsatzen jarri eta hori da
ziurren asta-kertena
gerora ere izan lezake
haritz horrek ondorena
eta baimena behar ezkeru
hori da haritz gardena
hobe izango zen uztea ta
mantentzea da onena.

Irieder: Semeak erran dautzu etxetik joan behar duela.

J.M. Fagoaga:

Hemen askotan gertatzen zaigu
onera edo kaltean
hementxe bizi izandu zera
zu orain arte maitea
ta orain hortxe pentsatzen zabiliz
guri bakarrik uztea
ez nuen hori inoiz pentsatu
egingo zunik semeak
orain artean bezelaxe zu
gurekin bizi zaitea.

Orain artean izandu dira
bai hainbat kalte eta min
ta zer bizitza eraman nahi dun
behar nizuke galdegin
gu etxe hontan bizitu gera
hain pozik eta atsegin
egin nahi duzun gauza da baina
hori nik uste zuk ezin
elkarrekin ondo bizi behar
orain semeak aldegin.

Orain artean etxea danok
eraman degu aurrera
ta zuk horixe pentsatu dezu
une batetik bestera
orain hementxe daukazu eta
zure aitaren galdera
hemendik kanpo joan nahi dezu
eta ez dakit zertara
etxe honetan baino hobeki
kanpon biziko al zera?

Irieder: Gartzelako ariketa barnean azken puntuak honela dio Elizagoien:
**"ERRANDAKOA ERRAN EZ BANU
LEHERTUKO NINTZEN BENETAN".**

Elizagoien: Iparraldera etorri eta
egun jarri naiz kezketan
frantzesak dago nagusi eta
ni negarretan penetan
euskera gehio egin behar da
gaurtik aitzin Ezpeletan
"errandakoa erran ez banu
lehertuko nintzen benetan".

Irieder: Azken puntuak honela dio Arrosagarai:
**"ERRANDAKOA ERRAN EZ BANU
LEHERTUKO NINTZEN BENETAN".**

Arrosagarai: Bizian beti izaiten dira
trublea frango denetan
eta nihaurri ere gertatzen
zerauzkit hauek artetan
beharririk denak estaltzen ditut
beti omere onetan
"errandakoa erran ez banu
lehertuko nintzen benetan".

Irieder: Garzelako gaiak honela dio Xalbador: "Norekin egiten duzu amets?".

Xalbador: Etxetik urrun bizi behar dut
ene artaldearekin
eta nahi bezein ardura ene
etxerat ez nintaike jin
aments goxoa norekin egin
lagunak nahi bait du jakin
zortzi egun huntan ez ikusita
bart egin dut emaztearekin.

Aments bat zer izan den horra ta
bertze bat aipatu behar
gaurko egoera triste hunek
eginarazten daut nigar
nahiko bait nuke askatasuna
noizbait harek dezan han har
bertze amentsa egin dut aske
dugula Philipe Bidart.

Egin bait duzu zuk biharreino

ene amentsen galdea
egia dena aitortzea dut
egungo egin bidea
lo guti egin bait dut barda ta
hiru aments bai ordea
aments egin dut txapeldun dela
osatzen dutan taldea.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 1990

LEKUNBERRI. 1990. apirilak 1ean

Finalerdietako bigarren eta azken saioa Lekunberriko pilotalekuan jokatu zen 250 ikus-entzuleren aitzinean. Gaijartzaile Mikel Taberna izan zen. Bertan parte hartu zuten bertsolariak bi taldetan banaturik aritu ziren.

D taldea:
-Manolo Arozena
-Antonio Olano
-Joxe F. Argiñarena
-Eusebio Fagoaga

E taldea:
-Bautista Perurena
-Ernest Alkat
-Anjel Martikorena
-Txomin Ezponda

Goizuetarako finalerako txartela "D" taldeak lortu zuen, Arozena, Olano, Argiñarena eta Fagoagak osaturiko taldeak, beraz. Eguneko saiorik onena egiten zuenarentzako saria Manolo Arozenak irabazi zuen, eta bertso onenaren saria, berriz, Ernest Alkatek.

AGURRAK

Arozena:

Arratsaldeon lehendabiziko
nere arreba ta anai
bi talde gatoz bertso kantari
Taberna harturik artzai
norbait alperrik egon liteke
bertso sakonen batzun zai
Nafarroako bertsolaritza
dugu helburu eta gai
bizirik dela erakustea
besterik ez genduke nahi.

Olano:

Arratsaldeon entzule maite
arreba eta anaiak
iritsi zaigu, ordua dator
heldu zaigu gui garaia
ni orain nator udaberrian
txoria bezain alaia
saiatu nahi det ia betetzen
dedan entzuleen nahia.

Argiñarena:

Iturenen hasi zan
gure txapelketa
nafar bertso festa
Lesakatik Arberatz
muga pasa eta
lehengoan bisitatu
gendun Ezpeleta,
Lekunberri pasa ta
dator Goizueta,
bertara iristeko
ametsez beteta.

Fagoaga:

Ongi etorri entzule maite
berdin arreba ta anai
badakizute gu ez gaudela
egunero bezain lasai
ta bertso onik ezin kantatu
ta zuek bertso onen zai
abildaderik ez dugu baina
borondate osoa bai.

Perurena:

Esango dezute munduan badek
hamaika holako ero
beren txapelaren atzetikan
hemen zabilzak urtero
hortatik ogia jaterikan
nik behintzat ez det espero
zerbait esan beharra daukagu
hoiek agindu ezkerro.

Alkat:

"Gau Txorian" zen bazkari
guziendako pozgarri
Nafarroako anaitasuna
eskaini dugu elkarri
agur epaile, agur entzule
eta agur Lekunberri.

Martikorena:

Arazo batzuk badituzute
Lekunberriko herrian
autobia hori pasatzen dalako
Larraun aldeko lurrian
zuhaitz onenak botzen ari dira
jo eta ke bai mendian
baina zona "berde" jarri digute
lehengo "Gurutze Gorrian".

Ezponda:

Menua ona izan duguta
hasi gaitezen kantari
gure egungo eginbidea
bertsoa dago gidari
zorian zerbait nahi ginduke
zuetatik bakotxari
lehendabiziko nere partetik
arratsaldeon deneri.

Taberna: Alkat neska zara, zu aldiz, Argiñarena mutila. Orain arte harremanak kartaz, eskutitzaz izan dituzue. Gaur elkar ikusi duzue lehen aldiz. Espero zenutena al da?

Alkat:

Orain artean ilunbea zan
orai etortzen argia
aspaldi hontan maitatzen eta
nik nuen ikus nahia
bihotzetikan bakar bakarrik
azaltzen bait zen begia
lehen aldikotz ikusten zaitut
eta aitortzen egia
zuk luma polita duzu
deraukazun aurpegia.

Argiñarena:

Orain artean karta bidea
guk ezaugarri bakarra
ezagutzeko eguna heldu
begietan irriparra
eskrituretan ez nuan egin
nik hain irudia txarra
izan behar du ene potxolak
oso bihotza xamurra
baina gorputzari begiratuz
barkatu, zera baldarra.

Alkat:

Gorputza baldar balin banago
zilegi da agertzea
bakoitza giren bezela gaude
ez dago ezinbertzea
gorputza dago bigarren mailan
lehena da maitatzea
zu neretzako egoki zera
eta aizu aitortzea
gero onari begiratzeko
sudurra aski luzea.

Argiñarena:

Neska langile fina izateko
lepo ondoa du guri
gorputz baldarra bigarren mailan
asko axolik ez zuri
nik gustoko gorputza nahi nuke
arrazoietan ixuri
ni gaur zurekin ezkontzen banaiz
gelditu ametsan erdi
asto gainetik eroritako
pulpa zakua dirudi.

Alkat:

Ez dut pentsatzen pulpa zakurik
zuk dautazun maitatuko
elgarrengana urbildu gira
Lekunberri da lekuko
zu neri asko gustatzen zira
hemen ikusi orduko
gorputzez doi bat meharra zira
eta dautzut aitortuko
lehenbizi zaitut gizenduko ta
ondotikan gizonduko.

Argiñarena:

Itxura danez gizon plantarik
zuk ez didazu ikusten
aurreak nola dantzatu behar
atzeari erakusten
gorputz baldarra dadukazula
sarritan degu entzuten
beste batean beharko du ta
ez zaitut hartu nahi aurtan
Santa Luzitan Zumarragara
ia erosten zaituzten.

Taberna: Martikorena, neska parranda zalea zara, Arozena aldiz, apeza, beti kontseju ematen ibiltzen den hoietakoa.
Non eta, biak Malloak dantzalekuan egin duzue topo. Hiruna bertso zortziko txikian Martikorena hasita.

Martikorena:

Gaur ere heldu det nik
Azpirozko gaina
eta nik dantzatutzen
ein det ahalegina
apaiz jauna ere gaur
hemen dago baina
ez dit arrapatuko
nere krabelina.

Arozena:

Lehen hala zinan da
gaur ere gau txori
zu ikusteko izan dut
nik hainbeste zori
pekatu hori ez diot
esan nahi inori
kanpon zertan zabilta
neskatx ergel hori?

Martikorena:

Apaiz bihotzekua
zu ez hasarretu
ia egiten geran
gu biok moldatu
guk egin dezakegu
elkarrekin pekatu
geuk pekatua egin
eta zuk barkatu.

Arozena:

Tentatzen hasi zera
zu zeure asmoaz
ni engainatu nahien
daukazun gogoaz
ni eskarmentatua
neskatx inozoaz
bide hortatik zuzen
inpernura zoaz.

Martikorena:

Ez da gure bidea
bide txarrekua
apaiz honek bait dauka
kriston istilua
nerekin egin nahi du
orain mutikua
elizarako nahi du
bai monagilua.

Arozena:

Gaur ere hortxe zaude
arraren ehizean
beti bezala buru
arinen haizean
ni haserreturikan
sartzen naizenean
konfesatzera zatoz
igande goizean.

Taberna: Argiñarena eta Perurena biak idiak zarete. Gurdia oker doa. Hiruna bertso zortziko txikian Argiñarena hasita.

Argiñarena:

Erantzuten saiako
ahal dan azkarrena

zer idi klase dan hau
gauza nabarmena
trabeska dijoa ta
hori okerrera
izan ere idia
bait degu errena.

Perurena:

Adituko zenduten
hoinbesten esanda
hau da nere albu
idiaren planta
izan ere badauka
haritza aineko hanka
hontentzat bide onik ez
luzegia data.

Argiñarena:

Zuk esan didazuna
ez dut hartzen aintzat
zerbait esatekoa
det nagusiantzat
baserriko pentsuak
ditu ta hontentzat
gero lan astunena
plakoenarentzat.

Perurena:

Igarriko 'iozute
jarrita begira
hala ez diran gauzak
esaten ari da
plazara jua eta
han buelta ta jira
itxura asko baina
harri gutxi tira.

Argiñarena:

Egun baten sartua
hau bai baserrira
eta gerozko honetan
galeran jarri da
pisuan ere bada
erraldean jira
gizen samarra data
hau mataderira.

Perurena:

Kontestazioentzat
ez da denbora ona
hau da ganadua
albu dagona
nola joan liteke
hongana gizona
langile txarra baina
pentsu jale ona.

Taberna: Fagoaga, Azpirozen behera frenorik gabe doan kamioieko txoferra zara. Alkat, polizia foralak gelditzeko agindu dizu.

Fagoaga:

Kamioi batek frenoak
dauzka bere esku
ta gaur joan dirade
nabila ni estu

eta esango dizut
nahi badezu justu
azpin pasako zaitut
bestela baztertu.

Alkat:

Gelditu behar eta
dabil zuzenean
ezer ez du ulertzen
neure erranean
bakoitza gabiltzala
zoin pure lanean
zendako ero batzu
dabiltza bidean.

Fagoaga:

Gainbehera eramaten det
nik indar bizia
eta esango dizut
eskuaz guzia
zuretzat inportante
bait da denuntzia
alde istimatzen baldin
badezu bizia.

Alkat:

Betidanik bizia
estimatzen oso
baina bidean gaindik
batzu dabiltz otso
holako bat ikusiz
ez da bate gozo
kamioi eta txofer
biak daude gaiso.

Fagoaga:

Ni hola ikusirik
hau miserablea
zerbait eingo bazendu
bertan da hobea
aurrean joan zaitez
baztertu jendea
bestela utziko det
guztia bidean.

Alkat:

Holakoen tokia
naski telebista
bidean ez otoi utz
holako artista
baina milaka daude
bat bakarra ezta
hau doan abiadan
dirudi tximista.

Taberna:

**Zangoak tinko eta
altxatu kopeta**

Argiñarena:

Ta ongi erantzuten
hartuko arreta
Goizuetan daukagu
jarria ta meta
bertsorikan onenak
dauzkat nik gordeta.

Taberna:

**Apirilak ekarri
dezake euria**

Argiñarena:

Eta askoz bobea
bada ugaria
legortearen mende
degu aberria
hobe egia balitz
ongi etorria.

Taberna: Lau oinak Arozenarentzat: **URDURI, DIRUDI, ZURI** eta **IXURI**.

Arozena:

Aurkitzen geranez gaur
denok hain urduri
eskua dardarretan
koloreak zuri
sudurretik mukiak
ia zaizkit ixuri
denak larri gaudela
halaxe dirudi.

Taberna: Ezpondarentzat lau oinak: **IZUTU, MUTU, IKUTU** eta **DAMUTU**.

Ezponda:

Egiten dugu lana
ez nehoiz damutu
lehen ere etsaiek gu
gaituzte ikutu
eiten dugunarekin
ez nehoiz izutu
ez asko esan arren
ez gelditu mutu.

Taberna: Bertze lau oinak Ezpondarentzat: **BERO, ESPERO, GERO** eta **BALEGO**.

Ezponda:

Egin behar lanetan
bait gabiltza bero
zer egin dezakegun
ikusiko gero
Euskal Herri maitea
baturik balego
horrelaxeko gauza
nork ez du espero.

Taberna: Hiru bertso nahi dezun neurri eta doinuan botatzeko gaiak honela dio Olano: "San Migeli otoitzean ari zara.
Zer eskatzen diozu".

Olano:

San Miguel zuri errezun nator
eskatu nahi dizut dana
oso tristerik ikusten bait det
gaurkoan nere barrena
eskatzen dizut herriarentzat
lehenengo askatasuna
eta ondoren ahal baldin bada
anaientzat maitasuna
horixe da gaur Olanok zuri
beraz eskatzen dizuna.

Gehiago ere nahiko nizuke

San Migel zuri eskatu
arren ez nuke zure aurrean
nahiko nik abusatu
bildu itzazu gaur zenbait anai
nolatan diran urratu
eta loturik dauden anaiak
ahalik azkarren askatu
eta Euskal Herri maite hontan
betiko pakea sortu.

Badakizu zuk aspaldi hontan
hara gu nola goazen
oker gehiegi ikusten det nik
ezer gutxi dago zuzen
ez dakit gaurkon San Migel zuri
zer esaten ari naizen
baina eskea egin nahi nuke
hemendik ahal bada luzen
Euskal Herrian bizi geranak
anaiak izan gaitezen.

Taberna: Pakete bat hartu duzu etxean, eta "tik-tak" egiten duela entzun duzu. Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.

Martikorena:

Pakete bat etxera
etorri zait neri
eta jarri naiz orain
benetan urduri
eta nere burura
sartu zait bai guri
zerena ote dugun
tiki-taka hori.

Lagun izan naiz beti
ni jendearena
barruan hartutzen det
nik kristoren pena
nonbait izandu naiz ni
gaizki egin dedana
zein kristo ote da hau
bialdu didana?

Gauza bat burura gaur
etorri zait neri
"ya que" ta naizen
orain urduri
bidali behar diet
nik pakete hori
zona berdean zutik
dauzkagun hoieri.

Taberna: Gartzelan zaudela emazteak lehen haurra izan duela erran dizute.

Perurena:

Jarri didaten gaia nolabait
nik biharko det gaur landu
gure andreak semia izan
duala orain esan du
ni kartzelan ta tentazio hau
burutikan ezin kendu

emazte hau nola izan leike
elkar ez gerata egondu.

Nere bihotzai salto haundia
gauz horrek dio eragin
badakizu senar-emaztiak
eramaten gendula fin
aurrera ere ahal baldin bada
egingo degu ahalegin
faborez esan zaidazu ibilia
al zera beste batekin?

Badakizu kartzelara joan nintzan
nik kulparik ez dedala
sobra dakizu izandu naiz ni
gizon fina ta apala
gaztetik ere sobra dakizu
hala izandu nintzala
baina haur hori haziko degu
biok nola edo hala.

Taberna: Bertsoa osatzeko azken puntuak honela dio Alkat:
**"ZAKURRAK ERE HAN ETA HEMEN
BERDIN OINUTSIK DABILTZA".**

Alkat:

Muga txar bat tartean degu
guziendako zoin hitsa
Euskal Herria batu nahian
aspalditikan gabiltza
anaitasuna beharrezko da
geroak hortan du giltza
"zakurrak ere han eta hemen
berdin oinutsik dabilta".

Taberna: Zuretzat ere Ezponda bertsoa osatzeko azken puntuak honela dio:
**"ZAKURRAK ERE HAN ETA HEMEN
BERDIN OINUTSIK DABILTZA".**

Ezponda:

Zer dago gure gizatasuna
nun daukagu gure giltza
gaurko egunez lagun tartean
ere ezin gira mintza
Euskal Herrian gu tratatuak
gaiztakin batzuen gisan
"zakurrak ere han eta hemen
berdin oinutsik dabilta".

AZKEN AGURRAK

Ezponda:

Gure ustetan etorri gira
adimentsu eta bapo
baina kontuak kontu dirade
denak onartu beharko
bertsolaritza aurrera doa
ez da egungoan hilko
nik oraindikan bertso batzuek
gero ditut kanta nahiko
laukote honi zorionak gaur
eta Goizuetarako.

Arozena:

Gaur izan degu Goizuetara
pasatzeko hainbat zori
gure bihotza putre zegona
ia bihurtu da txori
milagrorikan ez dala pasa
kontatu zuek danori
eskerrik asko txaloengatik
ta segi bide horri.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 1990 AZKEN SAIOA GOIZUETA

APIRILAK 8an.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa honen azken saio edo finala Goizuetako pilotalekuan jokatu zen. Mila ikus-entzuleren aitzinean, finalera heldu ziren bertsolariak, edizio honetarako hautatuko bideari jarraikiz, taldeka aritu ziren Mikel Taberna gai-jartzaile izan zutelarik.

Epaimahaia Emile Larre, Aingeru Epalza, Jean Pierre Etxegoien, Mikel Bujanda, Fermín Mihura eta Joxe Urrozek osatu zuten.

Lehen adierazi bezala bertsolariak taldeka aritu ziren. Ezpeleta eta Lekunberriko kanporaketa saioetan ere taldeka aritu ondotik, epaimahaiak bi talde aukeratu zituen Goizuetarako, lehena Ezpeletatik eta bigarrena berriz Lekunberritik. Bi talde hauek izan ziren elkarren aurka txapela jokatu zutenak:

Lehen taldea: - Mixel Xalbador
- Bittor Elizagoien
- Jean Louis Harinordoki "Laka"
- Lontxo Aburuza

Bigarren taldea: - Joxe Fermín Argiñarena
- Euxebio Fagoaga
- Antonio Olano
- Manolo Arozena

Bertsolariak ondotik azaltzen den ariketa saila egin behar izan zuten:

- Agurra
- Hamarreko haundian ofizioka bi bikote
- Zortziko haundian ofizioka bertze bi bikoteak
- Zortziko txikian ofizioka lau bikoteak
- Bi puntu erantzun talde bakoitzetik batek
- Lau oinak emanik bi bertso osatu talde bakoitzeko bertze batek
- Bakarka gai banarekin talde bakoitzetik bi
- Bakarka gartzelako lanean talde bakoitzeko bertze biak
 - * Gartzelako lanean bi ariketa ziren:
 - Azken puntua emanik bertsoa osatu
 - Gai bati hiru bertso nahi zuten doinu eta neurrian
- Azken agurra

AGURRAK

Xalbador:

Anai arreba hok ikusita
nor ez izan gaur harroa
baina taldean bertze bat ez da
gaur ni baino txarragoa
zuentzat bihotzez besarkada
baten eskeintzera noa
bi bertsolari talde hauek bat
egitea Nafarroa.

Elizagoien:

Lontxo ta Bittor, Laka, Xalbador
ez da laukote txepela
aurka daukagun laukotea ere
ez da batere motela
bedeinkatu dut mila erramu
ta piztu zazpi kandela
ia erramuk ematen digun
laukote honi txapela
orain lau urte Belodromoan
Xebaxtiani bezela.

Laka:

Iparraldetik pozikan
nator Goizuetara
aurride maitagarriak
zuen besoetara
amensten dut ibiltzea
euskotarren erara
zimendu oinarrizkotzat
hor daukagu euskara
iduritzen zeraut laster
salbu izanen gara
baldin zazpi probintziak
bilduz elgarretara.

Aburuza:

Goizueta euskalduna da
eta bertsozale fina
dagoeneko frontoia dago
ia gainezka egina
erantzuten ni saiatuko naiz
oso zaila daukat baina
la, ra, la, ra, la, ra, la, la
beraz gogotik egingo dugu
zortziok gaur ahalegina
bada ez bada "Omone Onen"
hartu dut konzentramina
ia gaurkoan positiobotzat
joaten den esamina.

Argiñarena:

Arratsaldeon Jainkoak
jende agurgarrik
ase asmotan gatoz
zuen bertso egarrik
ez gatozte gaurkoan
urdurin oinarrik
aurten taldean gatoz
ez gatoz bakarrik
elkarterikan gabe
ez dago indarrik.

Fagoaga:

Ongi etorri zuri
ai! entzule jator
baita ere zu Laka,
baita zu ere Bittor
nola ez Aburuza
ta Mixel Xalbador
gauza batek jartzen nau
neri buru gogor
urte osoan alde
ta gaur aurka nator.

Olano:

Nabarmena da ikusten da bai
urduritasun ageri
bertso onenak eskeini nahi ta
badaukat mila komeri
urretxindorrek udaberrian
bezain alai nator ni
besarkada bat arratsaldeon
bildu zerazten danori.

Arozena:

Hainbat herritar maite
hainbat lagun jator
bihotza pozetan dut
animoak baikor
nahiz profeta herrian
ez dan izan inor
hemengo txapela bat
gaurkoz nahi nuke lor
borondatetik behintzat
gaur topera nator.

HAMARREKO HAUNDIAN

Taberna: Bertsolarien borondate eta nahiak gauzatzea nahiko genuke guziok bertso saio eder bat entzuteko. Txapelketa saio guzietan bezala, honetan ere, froga desberdinetan ari beharko dute bertsolariak. Baina ez dute guziek lan berbera eginen, taldeka ari bait dira. Aurretik erabaki dute nor ari ariketa bakoitzean nik zozketarik eta ezer egin gabe. Hasteko, hamarreko haundian ariko dira bi bikote. Lehenbiziko bikotea, Mixel Xalbador eta Manolo Arozenak osatuko dute, eta ondotik bigarrena,

Bittor Elizagoien eta Joxe Fermín Argiñarenak. Beraz, altxa Mixel Xalbador eta Manolo Arozena, eta orain txapelketari hasera emanen diogu serio.

Zuek biak aita semeak zarete. Zu Xalbador, aita, oso arduratua zabilta gora behera politiko eta sozial guzietaz, eta kezkaturik zaude Manolo Arozenak, semeak, esan dizulako gauza hoiak ez zaizkiola batere axola. Hiruna bertso hamarreko haundian Mixel Xalbador, aita, hasita.

Xalbador:

Ez nakike gaur norbait kezkatsu
nun ez izan edo nola
langabezia ugari dago
berdin ixurtzen odola
gazteak zerbait egin behar ta
berdin ukatzen eskola
ta zuk semea ez maiz onartzen
aitak egin parabola
egoera hau ikusiz nola
ez har zerbaiten axola.

Arozena:

Txoko guzitan politika honek
badu nahiko eragina
bide okerrezz daramazute

gazte guztiaren grina
bide latzetan jendea jarri
hori da penik haundina
nik neretzako egin behar det
gaurkoz behintzat ahalgina
nere bizia zuzendu nahia
horrek ematen dit mina.

Xalbador:

Erakaspen bat zuretzat seme
aita hemen da lekuko
zuk badakizu edozein gisaz
zaitudala lagunduko
zu axolarik gate izaite
horrek bait nau beldurtuko
gaurko bizia gogorra data
ez zazula egin uko
bakarrik inoiz ez bait zera zu
zerbaitetara helduko.

Arozena:

Pozgarria da nere aitatzok
jarri dun sua ta garra
baina bihotzez zuri nago gaur
gauza bat esan beharra
txorakeritan gasta duzute
etorkizunan indarra
nik neuk badaukat nere buruan
zuzendutzen naun izarra
nere lana da etorkizunan
launduko didan bakarra.

Xalbador:

Etorkizuna zuk badaukazu
hortan dudarikan ezta
hau deus ez dela erraitea gaur
seme osoki errez da
langabezian hor badauzkagu
hainbertze mutil ta neska
zu geroari buruz zerbaiten
hobetzera zaitte presta
ta geroari buruz oraitik
hartu zazu zerbait kezka.

Arozena:

Kezkak baditut bai ene aita
hortan egon zaitetz trankil
nere herrian paseatzen dut
buru makur bezain umil
injustizian aurren bihotza
neri ere ez zait isil
baina gauza bat ikusitzen det
hor badago hainbat abil
gazte denbora gartzelan pasa
eta bertan ez dut nahi hil.

Taberna: Bigarren bikotea, Bittor Elizagoien eta Joxe Fermín Argiñarena. Zu Joxe Fermín, orain gartzelan zaude, bahitua edo sekuestratua egon zen Bittor askatzeko negoziazioan bitartekari lanak egin zenituelako. Zu Bittor, lehen bahitua egon ondotik, orain libre zaude. Hiruna bertso hamarreko haundian, Joxe Fermín, gartzelan dagoen bitartekaria hasita.

Argiñarena:

Badakizute zer gertatu dan
garbi dezu ikusia

gizon bat aske edo ta lotu
hortxen daukagu auzia
han askatzeko ahalegin denak
egin nun ta merezia
bitartekotzat ni izan nintzan
salbatzearren bizia
eta gartzelan gaur egoteko
hori da erru guzia.

Elizagoien:

Egun batean hartu ninduten
eta ninduten estutu
eta laguntza lagun maitea
ez zenduan zuk ukatu
baina beraren orde z neronek
diru pila bat pagatu
dirua zendun Iparraldera
kontrabandoan pasatu
larogei miloi eman nizkizun
ta gehiago ez eskatu

Argiñarena:

Ez nuan uste gaur entzuterik
horrelako aitormenik
zure bizia nik salbatu ta
hau esateko baimenik
poliziaren isilka jardun
ez det galdua kemenik
zuk ordaindua zendun dirutik
ezertxo ez det jaso nik
nahiz gartzelan ni zu libre zaude
eta ez det beste penik.

Elizagoien:

Ni libre nago eta zu preso
hori zure apurua
nerbiosoa jarri bait zaizu
orain zure ingurua
ez pentsa gero nagoenikan
buru gainetik txorua
zu askatzeko bero nezake
gorputza eta burua
baina itzuli lehendik emana
dadukazuten dirua.

Argiñarena:

Txakur txiki bat ez nuen jaso
ta zabilta malamente
argi ta garbi hitzegin dizut
ta daukat burua tente
Euskal Herriko langile askok
jasan dute hainbat kalte
eta zu libre utzi zaituzte
oraindik bait zera maite
zuregatikan lotu nautela
gutxinez kontura zaitte.

Elizagoien:

Gauza garbiak esaten hemen
orain nahi nuke nik hasi
mundu guziak zer pasatu dan
hementxe dezan ikasi
diru mordoa kobratu zendun
bere I.V.A. eta guzi
orain gartzelan zaude zu baina
eduki arren desgrazi

egia esan beste gauzarik
zuk ez zenduan merezi.

ZORTZIKO HAUNDIA

Taberna: Gelditzen diren bertsolariak binaka ari beharko dute zortziko haundian eta ofizioka. Hasteko, Lontxo Aburuza eta Euxebio Fagoaga. Zuek biak lagunak zineten baina biak lanbide ezberdina aukeratu zenuten. Zu Lontxo, lantegiko langilea zara, eta zu Euxebio ertzaina. Gaur Lontxo, bere lankideekin manifestatzen ari zenean, manifestazioa galeraztera joan den Euxebiorekin topatu da. Hiruna bertso zortziko haundian, Lontxo langilea hasita.

Aburuza: Gazte gaztetan egina nuen
Fagoaga nik laguna
ta adiskidea kontuan izan
nere kolkotik entzuna
hamabi orduz lantoki hortan
izaten bait dut jarduna
bakar bakarrik eskatzen dugu
nagusiak zor diguna.

Fagoaga: Gaur egunean badakizute
badagola hainbat alper
eta zuzen dagoen gauza bat
laster jartzen dute oker
aurreko aldean gazte txoroak
dauzkat eskuin eta ezker
begi bistatik aldein zazute
nere aurretikan laister.

Aburuza: Manifestapen bat egiteko
dugunez eskubidea
hortik ogia lortu nahi dugu
horixe dugu bidea
aizu ertzaina esan duzuna
ez al da piskat grabea?
lehen laguna zen gaur berriz oso
bihurtu da lotsagabea.

Fagoaga: Lanerako inoiz prest ez dirade
ta burrukatzeko trebe
hauek sekula ez dira egingo
ai! beren buruan jabe
hemendik alde egitea zuk
izango dezuta hobe
"mani" bat ezin leikea egin
horko baimenikan gabe.

Alburuza: Zuk sortu nahi zenituzke gaur
noski hainbeste arazu
zer esaten dun une honetan
lagun bai ote dakizu
lagun bezela jaso ezazu
albotik hainbeste mezu
ez badakizu geure bizkarren
gaintikan jaten dezu.

Fagoaga: Era horretan lagun ezer 'e
ezin dezute zuzendu
arrazoirikan nik ezin eman

ta ahal banizuke kendu
oraindik neri lagun maitea
zuk ez didazu mantendu
hori ez zitzaizun pasa izango
ertzaintza hartu bazendu.

Taberna: Dagoeneko izanen duzue guziok gaur goizean jokatu den pilota partidaren berri: Retegik 22, Errandoneak 6. Partidu horretan zuk, Antonio Olano, Retegiren alde egin duzu apustu, zuk ordea Laka, Errandonearen aide. Hiruna bertso zortziko haundian, Olano hasita.

Olano: Diru mordo bat jokatu gendun
jakin dezuten bezela
ta nere alboko lagun zahar hau
gertatu da hain txepela
diru guztiak nireganatu
ezer ez du berehala
diruan gisan galduko dezu
aurrean dagon txapela.

Laka: Gure txapelari buruz orain
aintzinetik ez zuk segi
aurretik ez nizuke beharko
egin espantu gehiegi
pilotaritana Errandonea
maitez bota diot begi
zer nahi 'zue behingoan nausitu
delata Donostian Retegi.

Olano: Diru guztiak kendu dizkiot
bururik ezin du altza
eta badabilki gaurkuan bai
mutil honek hain balantza
Retegi entzun orduko jarri
zaio dardarrean galtza
zer uste zendun Laka maitia
hura gendula Galartza.

Laka: Partida abiatua zuten
hastetik bete betean
Errandoneak irabaziko
zuela ene ustean
baina jakin gabe gertatu naiz
gaur egoera tristean
zuk galdu nik irabaziko dut
dirua beste batean.

Olano: Galtzaile gertatzen denak ez du
inoiz izaten umore
eta irabaztuna ikusten
dezute hemen dotore
honek ez du ez ikasiko gaur
mila aldiz esanda ere
ni diruz ondo nago gaur lagun
berriz jokatzeko ere.

Laka: Gisa batez urriki dut egun
egin izan dun gestua
halarik ere ez naiz etxera
itzuliko ni estua

berriz hasteko oraindikan dut
gutizi arras freskua
dirua frango duenak beti
hartzen bait du irriskua.

ZORTZIKO TXIKIA

Taberna: Neurri haundia alde batera utzita, neurri txikian sartuko gara eta hortan denek hartuko dute parte. Antonio Olano eta Mixel Xalbador. Zu Mixel Xalbador, gaueko ordu biak aldera, erromantizismoz beterik, maite duzun neskaren azpiko lehiora joan zara gitarrarekin kantani. Antonio Olano, neskaren amona atera zaizu lehiora. Hiruna bertso zortziko txikian Mixel Xalbador hasita.

Xalbador: Polita bait da zure
etxe ingurua
ikusitako duzu
nik egin keinua
maitea gehiago
maitatzera nua
gustatzen ote zaizu
gitarra soinua.

Olano: Gitarrarekin nahi du
iloba engaina
senargaia daduka
haren gainez fina
baina amonak hartuko
dio tamaina
amonak ere badu
zuretzako aina.

Xalbador: Ez naiz lehiopel huntan
nolanahi egona
ez bait naiz errez gaizki
nabilan gizona
zuretzat gitarra hau
jotzen dut amona
zure ilobarentzat
daukat biolina.

Olano: Amonak hartu behar
dizkio neurriak
argi ekarri ditu
benetan begiak
baina esango 'izkizut
guztira egiak
aldegin zazute gaur
gitarra ta biak.

Xalbador: Gitarra hau jotzen dut
ez sobera gora
badakit hunek egin
soinua heldu nora
hunen soinuarekin
helduta hau lora
hau lokartuta gero
jinen zaut iloba.

Olano: Esaten ari naiz ta
entzun nik esana

hara nolakoa dan
gaur bildu zaiguna
arraza onekoa
ote da zezena
gitarra utzi zazu
astindu kertena.

Taberna: Jean Louis Laka eta Euxebio Fagoagaren txanda. Zuek biak erretiratuta zaudete, jubilaturik. Ilunabarrean etxetik atera zarete, zu Euxebio kiroldegi edo gimnasia zoaz, eta zu Laka, ostatura. Hiruna bertso zortziko txikian Euxebio hasita.

Fagoaga:

Gazte nintzala ein nuen
majina fandango
ta zahartuta ostatura
ni ez naiz joango
eta lagun zuk ere
ez bazendu edango
horrela nik hainbeste
ez dezu iraungo.

Laka:

Hainbeste urtetan naiz
lanean izana
gainera indarka zen
nere orduko lana
atseden pixkoxino bat
zerauta emana
baliatzen joaiteko
adiskideengana.

Fagoaga:

Osasunik ez data
ustiaz patrika
nik berriz frontoiean
eingo det korrika
nahi bauzu lagunakin
han ta hemen zirika
ez dezu izango zuk
ai! nere fisika.

Laka:

Ene fisika ez da
oraindik txartua
lanarekin gorputza
nik hortaratua
museko jokoa dut
ere maitatua
lagunekin hortan dut
nik hartzen gustua.

Fagoaga:

Ardoa edanez zuk
nahi bauzu serbitu
nere buruak beste
ideak baditu
eta izango det bai
gero hainbat meritu
zuk nahi dezuna egin
nik hor nahi det segitu.

Laka:

Musean har ditaike
arnorikan gabe
hortan behintzat ni nago

buruaren jabe
kiroletako ere
oraino naiz trebe
zuk 'e lagunetara
joaitea hobe.

Taberna: Lontxo Aburuza eta Joxe Fermín Argiñarena. Zu Lontxo, pazkoazkoa egin nahi duzunez, Joxe Fermín Argiñarena apezarengana joan zara zeure pekatuak aitortzera.
Hiruna bertso zortziko txikian Lontxo hasita.

Aburuza: Arratsaldeon apaiz
dizut nik aurrena
sartzeko ematen al
dezu zuk baimena?
hemen duzu munduan
den lapur lehena
seigarrenen egin dut
okerrik haundina.

Argiñarena: Seigarren eskaileran
larria ibilik
hor erortzen zerate
neska ta mutilik
konfesatzera zatoz
gaurkoan umilik
gainontzean zuretzat
ez dago txartelik.

Aburuza: Prestu etorri naiz ni
txartelai heltzeko
mundura sortu ginan
hola ibilitzeko
eta zu jarri zera
dena barkatzeko
gainera ez al zera
neronen antzeko?

Argiñarena: Zure antzekorikan
ez dago elizan
seme bizi gaitzen
fedean gerizan
asko ikusten ditut
zu zabiltzan gisan
santu planta galanta
baina gutxi izan.

Aburuza: Berak konbentzitzen
hainbeste ahalegin
egiten ditu baina
hori lortu ezin
entzuleek gauza bat
behar dute jakin
haxe ikusi nuen
neska zahar batekin.

Argiñarena: Ta zer axola dizu
zahar edo gaztea
zure barrena dago
pekatuz betea

itxura danez dezu
okerra maitea
baina zertarako zu
damutu zaitea.

Taberna: Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien txanda oraingoan. Jendearen arteko neska bat keinuka ari da. Zuek biotako nori ari zaio? Hiruna bertso zortziko txikian Arozena hasita.

Arozena: Keinu bat ikusi dut
aurretik zuzena
eta dudarik ez da
neretzako zena
guapoa nola dugun
berez Arozena
zu ez hasi negarrez
itsusi kertena.

Elizagoien: Uste duzu baina zuk
ez duzu indarrrik
zuri keinuka ez da
hor ari izanik
gazte eta polita
ni nago bakarrik
nori ari dan ez da
galdatu beharrik.

Arozena: Zertaz hasarretu haiz
hi lagun arraio
nerekin egin dizkik
lehendik hainbat saio
beregana bazeukeat
hainbat amodio
nere esperientzia
gustatutzen zaio.

Elizagoien: Urtetan aurrera ta
ez zaigu ikara
aurpegi nahikoakin
badator bertara
zendako jarri bada
alboan zuk traba
neska hori zuretzat
penagarria da.

Arozena: Lehenago ere izan dut
hainbeste etekin
orain nere laguna
behar dezu jakin
beste leku batean
beharko dek ekin
ez zeok ligatzerik
aurpegi horrekin.

Elizagoien: Zuk aina badaukat nik
politik tankera
neska hori begiratzen
hor nere aldera
aitona zahar honetxek
nahi duta aukera

jubilatua ere
zuretzat sobera.

Taberna: Bertsolarien oraingo lana banaka egin beharrekoa izanen da. Hasierako puntua eta lau oinak emanda zortziko txikian bina bertso osatuko dute. Talde bakoitzetik bi arituko dira, batak oinekin bi bertso osatu.

Taberna: **Bat gutxi zelakoan
aurten lau txapela**

Xalbador: Lehenago banekien
txapela bazela
baina orai beldurrez
nago berehala
lautarik batto ere
neretzat ez dela.

Taberna: **Sakela hutsik eta
guztiekin zorrak**

Xalbador: Pasatzen ditut hola
nik egun gogorak
baina ez senditu nahi
hain beldur sarkorak
lantzen ahal bait dituk nik
ohian ta alorrak.

Taberna: **Haize berria dabil
munduan barrena**

Argiñarena: Nere iritziz hori
ez degu txarrena
legortean bizi gera
kontura aurrena
euririkan behintzat
hor ez dakarrena.

Taberna: **Zer uste duzu dala
enamoratzea?**

Argiñarena: Gehiago egin duzu
hori galdetzea
ezkontzea ez al da
estua trantzea?
errezagoa degu
andrea hartzea.

Taberna: Aburuza hauek dira lau oinak bertsoa osatzeko: **GAZTEA, BESTEA, EMAZTEA** eta **TRISTEA**.

Aburuza: Animatzeraz dator
orain emaztea
berekin ekarri dit
alaba gaztea
etxean gelditu da
isilik bestea
kantuan aritzeko
ez nago tristeza.

Taberna: **ZAPUZTU, USTU, APUSTU** eta **ESTU**.

Aburuza:

Ogetan egin dute
goizetik apustu
zalantzik gabe zegon
Inaxio estu
duen guztia harek
nolatan dun ustu
galtzeagatik behintzat
ez zaitez zapuztu.

Taberna: Manolo Arozenarentzat ere baditugu oinak: **KANTARI, UGARI, ARI** eta **NABARI**.

Arozena:

Alferrikan ez gera
gu bertsotan ari
baizik bihotz zabalka
denontzat kantari
bertan lehen izandu da
holako ugari
datorren jende honek
ez al du nabari?

Taberna: Bertze lau oinek honela diote: **LOREA, KOLOREA, DOTOREA** eta **HOBEA**.

Arozena:

Atetik bijilatzen
dadukat lorea
erdi zuria dauka
bere kolorea
kontrariok egin de'
saio dotorea
baina saiatu behar
egiten hobea.

BAKARKA

Ariketa honetan talde bakoitzetik bi bertsolarik aritu behar izan zuten gai banarekin.

Taberna: Jean Louis Laka, doinu eta neurri librean hiru bertso botatzeko honela dio: "Arbola batean zauden txoria zara. Zu zauden horretara bere burua urkatu nahi duen gizon bat urbildu da.

Laka:

Haritz eder bat bada pentzean
gainerat naiz iritsia
gain huntarikan ikusten bait dut
ongi inguru guztia
gizon gaztea sokarekilan
hemen zure ikustia
zaude piska bat ez etsituta
ez zazula gal bizia.

Ai! mutil gazte zure manerak
nola nauen ni izitu
segur badakit mundu huntako
biziak akatsak ditu
pentsaketa bat egizu orai
ta esperantza berritu
nere kantuaz nahi zintuzket
bultta batentzat alaitu.

Zuhaitz hontara urbildu zira
gogoa biziki triste
zendako bada ez ote laike
bizia gaur berriz haste
aterabide bat kausituko
zinuke zuk ene uste
ez zazula zuk bururik galdu
bestenaz ahaztuko zaituzte.

Taberna: Olano, hauxe da gaia hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian kantatzeko: "Emaztea haurdun duzu eta semeak galdera hau egin dizu: Zer du amak tripan? Zer erantzunen diozu?".

Olano:

Seme maitea aitak emango
dizu erantzun zuzena
galdera honek merezi duta
egingo det ahalein dena
amaren bultu hori zer dan zuk
gaur galdetu didazuna
oraindik ere gogoan daukat
zu egon zinan eguna
ene semea esango dizut
dala gaurko etorkizuna.

Ene semea erantzun nahi det
ahalik eta gaurkoan fin
seme batekin aitak gaur nola
garbiago ez hitzegin
ta zer dan hori esango dizut
beraz zuk dezazun jakin
txiki bat zera baina nahi dizut
orainguan ein ahalegin
beste anai bat etorriko da
jolastu dadin zurekin.

Ene semetxo aman barrua
unean ez dago lasai
eta erantzungo dizut garbi
orain zintzo eta alai
zure amatxon gustua zan da
aitak ere halaxe nahi
ez al dakizu beste anai bat
orain bidean dala zai
izan ditezen gure etxean
arreba eta bi anai.

Taberna: Horrela dio zuretzako gaiak Lontxo. Taula gain honetara igo zarenean seguru zaude diru kartera poltsikuan zenuela. Orain begiratu eta kartera falta duzu eta ez da inon ageri. Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian kantatzeko.

Aburuza:

Diru kontuan beti izan da
Lorentxo nahiko xuhurra
eta ondo gorderikan nuen
gaur nik dirutxo apurra
kartera hemen atzean nuen
honetan nago ziurra
baina banuen beldurra
ondoko hauei emango diet
zalantzik gabe egurra
eskuak jaso golpetik denak

ea nor dugun lapurra.

Hauek ere gaur ibiltzen dira
ziur neronen antzera
baina pentsatu begira nago
jarria hemen aurrera
hilabetean hasieran gu
gaude gutxi gora behera
hortik hartzen dut tankera
gastatzeko ere ez duzutenez
nere lagunak sobera
lehen bait lehen orain ekar zazute
lehengo tokira kartera.

Esan bezela nuen guzia
nere etxeko altxorra
defendatzea ez ote degu
hemen gauza derrigorra
nahiz eta bertsolaria izan
sarri laguna jatorra
berotzen ai' zait motorra
zuek ekarri lehen bait lehen hona
bazerate bai baikorra
bestela denei jarriko 'izuet
Jesukristoren zigorra.

Taberna: Honelaxe dio zuretzako gaiak Eixebio: "Sudurra luzatzen ari zaizu". Hiru bertso kantatzeko gaia nahi duzun doinu eta neurrian.

Fagoaga:

Egia esan entzundakoak
ez nau egiten grazia
baina horrela jaio nintzan da
ezin nun galerazia
aurpegitikan itsusi antza
eta sudurra luzia
era horretan ez al da izaten
euskalduna dan guzia?

Lehen esan det nik era hori
ez zait batere gustatzen
badakizute kalean zehar
ardo batzuk ditut hartzen
lehen sudur luzea nahiz ni eta
gero ta gehio luzatzen
ia edaten hasita ere
basoan hori ez da sartzen.

Xelebrea da entzule hauek
gertatzen zaidan kasoa
kalean zehar lotsaturikan
nabil, hori frakaso!
eta hala ere umoretikan
nabil nahiko eroso
punta piska bat zapaltzen badet
izugarri pailasoa.

GARTZELAKO LANA

Taberna: Gartzelako lan honetan, batetik bertso baten bukaera emanen diet bertsoa osatzeko zortziko haundian, eta bertzetik gai bat hiru bertso kantatzeko doinu eta neurri librean.

1) Azken puntua: "GERTATZEN DENA GERTATZEN DELA EZIN DUT EGIN ATZERA".

2) GAIA: "Itsu zakurra zara. Atzean edo gibelean daramazun itsuari adierazi behar diozu nolakoa den mundua".

ELIZAGOIEN

1. Nerbioak nola gabiltzen
txori batetxan antzera
ta nahiko zaila ikusten dut nik
txapel honetxan aukera
hala ta guziz ekarri nahi dut
ahal bada hor bai taldera
**gertatzen dena gertatzen dela
ezin dut egin atzera.**

2. Itsu maitea zurekin nabil
ni txakur on baten gisan
orain artean salbatzen zara
txakur honetxan gerizan
eta berriak eman nahi ditut
hemen dakiten baldintzan
herrian nola gabiltzan
maitasunik 'e ez dago bate
mundu hontako bizitzan
itsua zara, baina hala ere
ez zazu penarik izan.

Gure herrian zoritxarrean
badago nahikoa laino
pakerik ere ez dugu lortzen
anai danok oraindano
nahiz ta hortako jarri arren guk
majinatxo bat enpeino
lana egin punteraino
anaiak elkar ezin ikusiz
hemen gabiltz nahiko ñaño
itsua bizi hobe duzu zuk
gauza hoik ikustea baino.

Gure Jainkuak ez zizun eman
begietako indarra
eta hargatik bizi zerade
malkoa ta zoritxarra
baina guri ere erortzen zaigu
begietako negarra
hau data nahiko zatarra
ez da batere gertatzen dana
ikusteko ez edarra
anaiak elkar ezin bizi
bizi kendu beharra.

ARGIÑARENA

1. Txapelketa bat ahaztua degu
beste askoren antzera
bertsolaritza komeni zaigu
herri hontan indartzera

gaur egokitu liteke hori
hartzera edo ez hartzera
**gertatzen dena gertatzen dela
ezin dut egin atzera.**

2. Gaur itsu bati munduan berri
ematekotan nagona
aldez aurretik esango dizut
hau ez degula guk broma
zer haize klase dabilzan mundun
entzungo zenduan sona
balore haundik baztertu eta
diruan da zoriona
eta munduan elkar hiltzen hor
dabil aspaldin gizona.

Arrantzalean arazoekin
lehenik behar nuke hasi
baserritarrak ere mendean
tratu txarrean berezi
kamio bat hor egin asmotan
beren lur denak berezi
eta Euskal Herri osoa gaur
legorte batean bizi
zu bezelaxe itsu banengo
neretzako hobe kasi.

Merkadu baten sartu ziguten
hortik dator ondamena
Euskal Herrian nola gabiltzan
dago gauza nabarmena
herri libre bat izan nahi degu
nundik nahitikan ez dena
batzuk begitan, zuk ez bezela,
ikusitzeko kemena
baina ez dute hau ikusi nahi
horrek ematen dit pena.

XALBADOR

1. Portatu behar nuen, alta, hemen
xapeldun baten antzera
baina zein nekez aritu naizen
zu konturatu al zera?
entzule onak agurtu eta
joan nindaike etxera
**gertatzen dena gertatzen dela
ezin dut egin atzera.**
2. Xakur denak ez baina ni
banaiz xakur amultsua
ahal bezain untsa nahi dut
gidatu nere itsua
erakutsiz non den ongia,
ere non den irriskua
orai erran nahi dizut garbiki
nolakoa den mundua.

Entzuten dira nigarrak,

entzuten da zenbait soinu
eder edo itsusiak
munduak ainitz eremu
badira ba gusta litzaizkizun
hainbat ta hainbat erreinu
naizen xakurra pozik litaike
itsu hau argitzen banu.

Ikustera zein gaztigu
ez ote zaitun zu uzten
ikusteko laike, alta,
hemen zer egin dituzten
batzu pozetan daude ta bertze
batzu dirade zapuzten
eskerrak hemengo manerak zuk
ez dituzula ikusten.

AROZENA

1. Hainbeste samin, hainbeste egur
herri hau doa lehertzera
nere esana egia dala
konturatutzen al zera?
gure etsaien egurratik
ez inor juan etxera
**gertatzen dena gertatzen dela
ezin dut egin atzera.**
2. Oh! nere lagun itsu maitea
bihotza dadukat larri
sumatzen zuna egia ez dela
egin diozu igerri
entzuten dana belarrietan
gezurra ohi danez sarri
nahiz negar malkoak direla esan
berdin eiten dute irri
baina zu lasai, emango dizut
nik mundu hontako berri.

Nahiz itsu izan zuk badakizu
nere esana ulertzen
ta konfidantza dezun ezkerro
hasi behar det kontatzen
bi potentzien mende gaude gu
bihotz erdi danak lehertzen
itxuraz ongi ibili arren
ez degu elkar agurtzen
sozialismok hasi zaizkigu
kapitalismo bihurtzen.

Jende askoren bizia dago
zurea bezain iluna
eta aurrera pauso bakoitza
bestea bezain astuna
herri burruka gogor daukagu
hor bada etorkizuna
ta Euskal Herri mundu txikia
da jakin nahi duzuna
bidean gaude, lortu desion

herrian askatasuna.

SARI BANAKETA ETA AZKEN AGURRAK

Taberna: Epaimahaiak, Arozena, Olano, Fagoaga eta Argiñarenaren taldea eman du irabazletzat 1785 punturekin. Bigarren gelditu da, Xalbador, Elizagoien, Laka eta Aburuzaren taldea, 1747 puntu jaso dituztelarik. Hauen sariak banatzeko eskatuko nieke Imanol Lazkano eta Mariano Izetari urbil daitezten.

Bertzalde, bi sari gehiago ere bazeuden, bata bertso onenaren saria, eta hori Bittor Elizagoienentzat izan da, gartzelako gaian kantatu duen lehen bertsoarengatik bereiziki. Saiorik onena egin duen bertsolariarentzat dagoen saria Manolo Arozenak jasoko du.

Xalbador:

Nere bihotza gaur berekoia
izan da naski sobera
dena zuentzat zeukan bai baina
ezer ez zaio atera
utz nezazue zuen guzien
bihotzez besarkatzera
bertze aldi batez hobekiago
portatuko ote gera?

Elizagoien:

Bittor ta Lontxo entrenatzeko
"Zaldikon" bazan gustoa
Kike ta Burgi, euskera lantzen
eta Manu teknikoa
Jon eta Félix, Pablo ta Anjel,
ta Patxi epaimahaikoa
Rikardo denen Jainkoa
eta eskoba kirtena berriz
kable gabeko mikroa
ta kopa hau ez da nerea baizik
"Zaldiko" elkartekoa.

Laka:

Lehen lehenik irabazleri
denen partez goresmena
eskerrak zuer entzule onak
isilik zinaudetenak
ezin lasaituz egonak gira
korrapilatsu ginenak
bertsu honetaz orroitu eta
laster ahantzi txarrenak
anai arrebak ikusi arte
eta ondo bizi denak.

Aburuza:

Txapelduneri mila zorion
ta mila esker Goizueta
zoragarria izandu degu
jarri dezuten arreta
nolabaitean pasatu degu
gaurko hontan azterketa
ni pozik noa etxera orain
kartera agertu da eta.

Argiñarena:

Amets egina nintzan
ni txapel beltzian
ni txapel beltzian
eta txintxilik jarri
apalan ertzian
aldiro ikusteko
salara sartzian
nahiz eta emaztea
jarriko letxian
garbitzeko bi traste
gehiago etxian.

Fagoaga:

Desafioa bukatu zaigu
bukatu da apustoa
jende guztiak hasi aurretik
bagenduan disgustoa
eta ez dakit hauen artean
nik ere ein det bultoa
eta zuek, ai!, barka zazute
ez bada izan justoa.

Olano:

Badakizute aurten nola zen
txapelketa bat berria
lehenago triste eta urduri
orain iritsi irria
agurtu behar det bihotzetik
hainbat maite dan herria
agur guztioi bihotz-bihotzez
entzule maitagarria.

Arozena:

Itxura baten gaur egin dugu
guk egundoko azaina
maila bajaran gabiltzadela
ongi badakigu baina
hau izandu da entrenadoren
lan gogorraren ordaina
ez nago gaur hain bikaina
baina eskerrak eman beharko
ez bait naiz horren zizaina
nahiz eta zuei ez eskeini nik
merezi dezuten aina.